

anaitasuna

1.978.EKO APIRILAREN 1EKOA--360ZENBAKIA 50 PTA 5



GOGORA
BEZATE?




zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz gizaldi aurreratzen



aberri egunaren ondoren

Urtero bezala, Euskal Herriak bere eguna, Aberri Eguna, ospatu du zuzenki eta legalitate hauskor honen barnean. Sekulako manifestazioak ikusi ahal ukan ditugu Iruinean, Gasteizen, Donostian eta Bilbon. Numeruetan denetarikoak eman dira. Batzuren ustez Euskal Herri osoko manifestariak 300.000 ziren bitartean, beste batzuk 500.000 baino gorago daramate kalkulua. Hegoaldeko Aberri Eguna izan dela esan genezake, zeren, Ipar Euskal Herrian, haien kontura abandonaturik ospatu behar ukan baitute Larhun mendiko muga gainean.

Abertzaletasunaren eguna izan dugu aurtengoa, talde eta kontsigna abertzaleek erakutsi duten indarrarengatik. Estatalisten presentzia, gogo edo ahalmen faltaz, makal agertu zaigu manifestazioetan. Hauteskundeetan hain indartsu gertatu ziren batzuren iraganaldiak, ez zuen Bilboko manifestazioan bi minutu baino gehiago iraun. Non dago, bada, alderdi horretako buruzagiak hainbestetan deklaratu diguten abertzaletasuna ?

Euskal Herriaren askatasuna "independentzia" hitzarekin identifikaturik sentitzen dugunok gero eta gehiago izateak eta ETaren aldeko kontsignen arrakastak, madrileko prentsa eta politikariaren eskandalizatzea sortarazi du. Espainiako hiriburuko egunkariak, 'El Pais' eta "Diario 16" aurrerakoiak barne direla, horregatik eta manifestazioetan bandera espainolaren faltagatik (!!!) harriturik eta kezati agertu dira. Beti bezala, Madriletik ez dute edo ezin dute ezer ikusi eta konprenitu nahi.

Lemoizeko zentraleak jarri lehergailuaren ondorioz, zoritxarrez bi langile hila gertatu dira. Iberduerok ezin ukanean du oraingo zentrala martxan jartzeko uranioa sartu eta obren bukaera nabariki luzatuko da. Ekintza honen kausaz herriak epe berri bat izango du, askoz heriotze gehiagoren kausa izanen litzatekeen zentral nuklearraren kontrako burrukak eta mobilizazioak aurrera eraman eta, obren behin betiko geldiaraztea lortzeko.

Aberri Eguna, euskara eta euskal kulturaren eguna ere ba da. Eta euskal prentsa, hots, euskarazko prentsaren zoko honetatik, ezin gaitezke geure egoeraz baikor izan. Ekonomi kinka larriak behar turik, ANAITASUNA berandu eta paper eskasagoz iritsiko da irakurlearen eskuetara. Euskal Kontseilu Nagusiari laguntza eskatu diogu. Noizbait, agian, sasoi hobeak etorriko dira euskal prentsarantz. Horien zain gauden bitartean, bizirik irauteaz konformatu beharko dugu.

AURKIBIDEA

- 3. Editorialea
- 4-5. Euskalestrategia bereziaren etsai boteretsuak
- 6-7. Kooperatibak Iparraldean
- 8-9. Iparraldeko hauteskundeak
- 10-15. Preso sozialak
- 16-17. Madriletik
- 18-19. Frantzia: Ezkerraren porrota
- 20. Dona Prudentzia
- 21-23. Gunter Brettschneider-ekin hizketan
- 24-25. Eliza eta irakaskuntza Euskal Herrian (II)
- 26-27. Eskolaurrea
- 28-29. "Euskal Herria" hiru liburutan
- 30. Musika
- 31. Sukalderako saltsak
- 32. Posta
- 34. Gurutzegramak

Leg. Gor.: BI-1753-1967

EUSKAL HERRIAN

EUSKAL ESTRATEGIA BERE-
ZIAREN ETSAI BOTERE-
TSUAK

Espanian faxismotik burjes demokraziaranzko iraganaldian aurkitzen gara. Burjes Demokrazia, ordea, ez da benetako demokrazia, burjes demokrazian kapitala baita nagusi. Beharbada, burjeseriak monopolist oligarkiaren gaidikako aurrera pausoa emanen du, baina betiere, burjeseriak manderatua aurkituko da Herria. Gure gizartean ere, mendebalde osoan bezala, zoritxarrez, klase desberdinak daude (mende-menpeko), eta Estatua klase baten euskarri eta zerbitzu erakunde denez, eta burjeseriak menderatuz edo egitura kapitalistak, Estatu burjesa da nagusi, Herriaren gehiengoaren eta Herri zanpatuen bizkarretik.

Alderantziz, benetako demokrazia, herri demokrazia litzateke. Gizartearen gehiengoa langileria izaki, langileriak zuzendu behar du gizarte osoa, ekonomia, kultura, politika, komunikabide eta erakunde oro, kapitalista erdirakoi batzu ez ezik langileria eta Herri zanpatuen zerbitzuko Estatu Sozialista batez lor baitaiteke Herri Demokrazia edo Sozialismoa deritzona. Klaseekiko Estatuari gagozkiolarik, axaetik bederen, Proletaritzaren Diktadura eta Burjeseriaren Diktadura uki ditzagun.

Proletaritzaren Diktadura, jakinikoa denez, Estatu burjesa deuseztatu eta Komunismoa burutu ahal izateko langileariak (gehiengoak) muntatzen duen Estatua Orain ez dugu alderdi zuzentzailerak ala proletalgo autoorganizatuak eta zein neurritan eratu behar luketen sozialismoa hemen sakontzeko betarik.

Burjes demokrazia, ordea, oso itxura politez agertzen da, hau da, Europa kutsuko "Demokrazia formal", e.a. edo demokrazia omen, besterik gabe. Burjes Demokrazia burjeseriaren diktadura besterik ez baita, jatorriz. Klase bat defendatzen du (gutxiengoa) Estatu bezala, eta Diktadura da, ez baita zilegitasunean edo herri

gehiengoan oinharritzen, indarrez (armada bidez) eta gutxiengoaren interesen alde baizik. Beraz, ez gaitezen engainia, Europa edo Mendebalde kutsuko sasidemokraziarekin. Adibidez, A.P. eta U.C.D. demokratik omen, baina bai finantzabideak, bai armada, bai Estatua eta bai erakunde oro beren kontrolpean eta beren zerbitzuan taituz.

Beste arazoa, Sozialismoa nola eraiki taktika-estrategia desberdinetan datza. Europar sozialistak eta eurokomunistak gizarte egituraren aldaketa edo transformazio bidez baliatzen dira, eta erreformismo horren jarraiki Espainian (eta Euskal Herrian) lehenik burjes demokrazia errotu behar omen da. Ez dakit Europarako edo Espainiarako bide izan den, baina Euskal Herrian aurkitzen diren baldintza objektiboak, Herriaren autoorganizaketa sendoa, herri mugimendu eta borroka harmatuaren historia berezia aztertutik, Euskal Herriak ba du irtenbide berezi eta orokorrago bat, Herri autoorganizaketa eta KAS-eko erakundearen estrategiari jarraituz. Halegia, nazional-klase askatasuna bat-batean.

Euskal Herriko herri mobilizapenek garaipen handiak lortu dizkigute (amnistia, e.a.) baina burjes (eta sozial) inperialismotik eta abertzale den burjeseriatik (PNV) askatasun osoa lortzeko, ez dira nahikoak herri mobilizapenak, herri borrokari borroka harmatuak lagundu beharko dio orainarte bezala Euskal Herria burujabe eta sozialista bihurtzeko.

Euskal Herrian diharduten ezker estatualista erreformistak (PSOE, PC, e.a.) eta ezker estatualista iraultzaileak (MC, ORT, OIC, e.a.), ordea, ez dituzte aitortzen edo ez dituzte onhartu nahi Euskal Herriko baldintza objektiboak, baldintza objektiboak baikor aitortzea, beren estatualist estrategia lekutik kanpo aitortzea bailsateke. Hortik ETARI demokraziaren eta herri mugimenduen izenean deklaratu dioten atergabeko guda zorrotza. Euskal Herrian arrotz edo etorkin taldean finkaturiko alderdiek bakarrik

aipa ditzakete holako gauza. Guztiok baitakigu, diktaduraren ETAREN kolpeei esker sortu zuten herri mugimenduak eta kontzientziatu Herria. Geroztik, garbiago ETAREN jarrera herri mugimenduen eta euskal langilerien osagarri eta zerbitzubide jarri dela. Gaurregun, orain orain ez baitago oinharritzeko biderik lortzeko garrantziak, askatasun aldetik, ez euskal autonomia aldetik. Horra hor lekuko konstituziorako borradorearen dezentralizapen hutsa, indar presiboak organizatzen, LAL eta HASI legetik kanpo, e. Hortik oraindikako sasidemokrazia, eta herri mugimenduen muga diskriminagarriak eta ETAREN kolpe egoki batzuren premia, sasidemokraziaren kontraesanak garbitu eta Herri demokraziaranzko bidea sendo dadin.

Beraz, ez da harritzekoa euskal estrategia berezi horri etsai boteretsuak gaineratzea, C. G. V. kongadoreen eskutik ere estatualista eta erreformist taktika-estrategiak inposatu beharrez. Ez abertzaleok nazionalista bezala salhatzen gaituzte, beren estrategia guztiz erdirakoi eta nazional espainolista dela ohartzeke. Adibidez, xelebreak eta adierazgarriak gertatu dira azkeneko bolada honetan herriko borroka harmatuaren aurka (P C, P S O E, D C V, e. a.) muntaturiko mallebrak eta Herriak garrasika eskatzen ondorengo Lemoizko kolpea (langile hilez) eta alderdi horien beren sindikatu semeekin batera hilketak, ETAREN gutxietsi eta zampaketarako, esplotatu eta beldurliatu bide dituztelarik. Beren komunikatuetan ere ezin dute bat neamorrerik eta ezinikusia disimulatu beren politikalekua inposatu beharrez.

Dena dela, delako burjes demokraziatik iragan behar badu ere, burjes demokrazia gorabehar, geure helburuak ez dituzte ukatuko, geure lorpen eta estrategia bereziak ukatuko ez dituzte bezala.



Kukuak oker joko ote gaitu berriro



Euskaldunok askotan burruntzalia sartu ere, ez da horregatik mozkinik asko atera.

Euskal politika eternala bide zaharretatik erroz ba doala esateko ez du inork ukatuko. Gu izan gara Espainiako historian herri pragmatiko bat. "El realismo emprendedor del Pueblo Vasco" eta abarrezko bitxitasun asko ikasirik geunden gure belaunaldikoak orduko eskola ofizialetan. Ba liteke, gainerako irakaspen asko gisan berori ere faltsua gerta zedila.

Lehen eta orain euskaldunoi askok egin dio barre. Bergara eta Lizarra dugu kasu esaterako. Bietan gaitzaila. Bietan gure herria bere nortasunaren gogo eta bitzita zenbait galduz. Gero gerokoak.

Azkenean ere gerorik gabe gelditzeak ez digu jadanik kezka handirik ekarri, horretarako, oraingoa gozatu eta bizi behar baita. Euskaldunontzat egunotan ez dago Espainian bizitzerik. Euskal Herriaren nortasunari minbizia sartu baitiote aspaldian.

Bitxitasuna eta barregarrikeria zer den eta ez den jakiteko, galdia ezaiezue Euskal Kontseilu Jeneralekoiei. Eskale hipotekatu baten modura, zenbait kreditu eskatzen ari da gizagaixoa. 12.000.000 pztako kantitate izugarri, neurgaitz, amaigabea. Lemonizeko lanetarako, Lemoniz ez diren anitz gauzatarako ere, inbertsio berdin samarrak izan dira, agian.

Antza denez, pragmatismotasuna eskalearen kuantitate nagusia da.Aberri-Egunaren ondorioak, jakina. Beroni buruz ez da oraindik dena esan. Esatekoak prestatzen ari dira Madrilen. Bitarte honetan, lerro hauk amaitu baino lehen, seguru gaudeke gure burruntzaliarekin batera beraien hankak ere sartuko dituztela porrusal-

da berean eta noski, euskal politika eternalak agintzen duenez erre egingo dira, zipristinak gu ere kiskaliz. Kontraekintzak badatoz. Kukuak oker joko ote gaitu berriro?

El dia de la patria vasca Erdal filologiari aurrera-tze asko egin dio, euskal textuari hitz bat gehituz. Aberri Eguna, euskal-aberri-eguna bilakatu zaie betikoei.

Hemendik aurrera- lehen ere- bi herri, bi patria, bi aberri, bi indar harmatu, bi hizkuntza, bi klase eta zazpi euskal herri izan eta omen dugu.

Independentzia dela eta ez dela Espainiako inteligentziak urratu du oraindik urratzeko kontserbatzen duen guztiaren apur bat. Gogortu du itxura. Zenbait militar oso inportantek urduritasunak erakutsi dizkigu. Patriaren batasuna sakratua baita. Bai Jaunok!...

Hala esaten zuen Sabinok, hala PNVko jendeak eta PNVkoak ez direnak lehengo eguneko Aberri-egunaren manifestaldian IN-DE-PEN-DEN-TZIA- poliki oihukatuz.

Oso gauza jakina da erresuma honetan betiko patriotek abertzaleak sortezten dituen bitartean, pragmatismotasunak bere aldetik eskaleak sortzen dituela. Termino mediorik balego?... neurrietan tranpa egingo litzaiguke seguru!.

Nahiz eta "Euzko Gudariak gara" erritualan sartu ez dugu horregatik memoria txarririk lortu.

Gu ez gara espainolak, frantsesak ez garen bezalaxe. Biak izateko hitzen esanahi faltsua deuseztatu behar da. Posible izango ote da? Madrilek eta guk dugu erantzuna. Guretzako "Gora Euzkadí Askatua" betiko zentzu berbera eduki du.

Sir Jauna.

KOOPERATIBAK IPARRALDEAN ASKATASUN POLITIKORAKO

Kooperatibak izanen ahal ditugu Garazi-Baigorriko kantonamenduetan? Oraindik inork ezin esan baiezkorik ez eta ezezkorik. Dena dela, mugimedu bat eta tendentzia ttipi bat ba dagoela hauei buruz

ez dezake inork uka. Hain zuzen, Martxoaren 12an, larunbatkari izan ditugu kooperatibatzaile ezagunak Baigorriko Herrian. Hor genituen Ramuntxo Cambon COPELEC kooperatiba presentatu diguna, Telletxea eta Alfaro TELECOOP kooperatiba azaldu digutenak, ELGARREN Baigorriko zuregileen kooperatiba. Beraz, kooperatiba askoren testiguak mintzatu zaizkigu. Bat edo bestek aitortu dit zergatik asmatu diguten elkarrizketa eta kaberatze hau. Batipat, kantonamenduko gazteen arregurari erantzun bat bezala nahi zuen izan elkartzeko honek. Halabaina, badakigu nola 223 gazte egin duten protestazio bat bertako langabezia. Beraz, parada handia zuten kooperatibatzaile



Entzuleetarik zenbait

le hauekin hitzegiteko. Damurik, ez zegoen hor 223 gazterik, zeuden bakarrik, hauetarik 10 edo 15, 20 goien goienaz. Non zeuden beraz gainerako 195ak? Bai, norretan dago zerbait joan ez denik, zerbait logika guztietatik kanpo denik. Zerbait ulertzen ez duguna baina aztertu nahi gukeena.

223 GAZTEEN MOZIONEAREN SEGIDA. ZER IZANEN DA?

Lehen urratsa izan zen, 223 gazteek mozioa bat azpimarkatzea eta prefetari bidaltzea. Gerostik Jaun prefetak erantzun die eta eskatu elkarrizketa batetarako prest zegoela 4 edo 5 izendatuekin edo mandatatuekin, haren bulegoan. Gazteen erantzuna ez da izan eza, baina izan da prefetari eskatzea berau etor zedin Baigorriara, Baigorriko gazteekin hitzegin nahi baldin bazuen. Oraindik, erantzunik gabe daude gazteak. Hona zertan eta zer heinetan dagoen arazoa. Oso gelditua. Eta bakoitza bere estrategian gogor. Ba ahal dago arazoaren aurreratzeko esperantzarik? Ez dugu uste. Nire ustez konpromezu batetara heldu beharko. Baina, nahi ahal dute Baigorri eta kantonamenduko gazteek elkarrizketarik? Ez dugu uste ere, ezen elkarrizketaren desilusio batean zehar baitabilta. Egia esan, hau da, elkarrizketa faltsuen desilusioa eta demokrazia faltsuaren desilusioa. Gauzak grabeak, oso grabeak, baina ere gezurrezko hitzen entzun ez nahia, gezurrezko boterearen jasan ez nahia, benetako kolonialismoaren eta agintarien borrokatu nahia. Hots, jarrera honek oso sustrai barnetikakoak ditu. Erro sakonak dituen jarrera benetan. Bistan d, honelako postura ez dugu gauza apartatu bezala ikusi behar baina baizik kontextu orokor baten barnean: Nekazarien borroka, lurren ebastea, turismoaren inbasioa, ekonomiaren zuloratzea. Hauek denek kontextu soziala egiten digute eta honetatik sortzen (Batzurentzat bederen) euskal abertzaletasuna. Beraz, ezin bereziko eskontzak dira soziala eta aberria. Egia da, batzuk ezkontza hau hausten digutela eta orduan dira internazionalistak. Dena dela, aldi honetan berriro, hitza eta elea kantonamenduko gazteei zegokielarik, non zeuden gazte horik? Eta orain zer segida emanen dute kooperatibetaz egin den mintzaldi honi? Ba a dago kantonamendu guztian, bost edo hamar gazte prest daudenak kooperatiba baten eraikitzeko? Hona galdera zenbait, bilkura horrek sortu dizkigun galderak berak.

Nire agiantzarik handiena da konkretuki eta ekintzetan erantzun benetako bat agertuko zaigula. Erresponstabilitate guztia gazteen eskutan dagoelako orain nabari izanen da, ea erresponstabilitatearen bidea aukeratzen duten edo ihesbide errexari emanen duten. Erantzuna gazteei doa, guztiak erantzun horren zai gaude. Autogestioaren proposamendua dute, esan nahi dut, bakoitzak bere esku bere geroaren egitekoarena. Erresponstabilitate oso batek eta batipat heldutasun benetakoak eskatzen digu honelako jarrera autoges-



Erlax kooperatibatzailea Alfaro kooperatibatzailea Telletxea
Iturbide kooperatibatzailea Camblon kooperatibatzailea

zioarena. Baina iritsia ahal dugu autogestioaren ordua? Gazte hauk berauk, autogestioaren orduan ahal daude? Datorren egunetan ukanen dugu argitasun guztiaren ordua, ez gezurrarena, egiarena baizik: gazte hauen heldutasunarena, gazte hauen egiarena. Berauek gezurreztatuko edo baieztatuko dute beren jarrera. Hau da errealitatearen lege hotza eta hau izanen da gurea.

ZER ESAN DA KOOPERATIBETAZ:

Ezin daitezke esandako guztiak hemen ezar. Horregatik bilduma ahal bezain argi batean emanen ditut pondu nagusienak.

1- Lanaren sortzea: lau edo bost aldiz Ramuntxo Cambhonek esan eta berresan digu kooperatibaren helburua: lanaren sortzea. Baina lanbi-deak ez dira borondaterik gabe sortzen diren gau-



Kantonamenduko gazteetarik zenbait

zak. Horretarako, multzo batek izan behar du eta multzo horrek borondate kolektibo bat agertu lan batetarako, kreaio erreal batetarako: batipat, kooperatibaren eginahal sakona izan behar da. Hau da lehen baldintza, benetan baitezpadakoa. Lehen baldintza hau osatu behar da bigarren konbikzio batek edo oinharrizko fede batek: herrian bizinahiak, Euskal Herrian lanegin nahiak. Eta hemen agertzen zaigu bigarren motibazio bat, politikoa hain zuzen: euskaldunak gara, Euskal Herrian lanegin nahi dugu, herrian bizi, herrian hil. Ez dago beste biderik, hau da askatasun ekonomikorako bide bakarra. Oso puntu garrantzi handikoa ezen, ba dakigu askatasun ekonomikoak permetituko digula askatasun politikoa. Beraz, bigarren baldintza (Jesus hegoaldeko errefugiatu izanak agertu diguna)... askatasun ekonomikoa EGIN askatasun politikorako.

Honetatik landa hitzegin digu Iturribide jaunak'Partzuerrekoak'. Kooperatibatzaille honek oso ondo kunplitu du Jesus adixkidearen puntu nagusia. Hain zuzen, Iturbide Jaunak agertu du asistentzia ekonomikoa eta asistentziatzko mentalitatea hautsi behar direla. Eta hautsi behar dira askatasun ekonomikoaren bidez, batipat, kooperatiben bidez. Ikusten da beraz ekonomiaren eragin handia, honen politiko boterea eta indarra. Hiru puntu nagusi, hiru puntu zein sakonagoak: Borondate kolektiboa, herrian lanegin nahi edo nazional motibazioa, askatasun ekonomikoa, mentalitate guztiaren eraberritzeko eta nazional askatasunerako.

DEPENDENTZIAK HAUTSI INDEPENDENTZIAREN EGITEKO:

Lerro hauk idazten ditudan orduan frantses hauteskundeen lehenaldia iragan da. Eta zer nabaritzen zaigu? Iturbide Jaunak esaten zigun gauza hori bera: Asistentziatzko mentalitatearen sakontasuna eta barnatasun izugarria. Jende lehertuak, nekazari ttipiak Intxauspe bozkatu du. Zergatik? Batipat, hau delakotz ekonomi boterearen giltza. Horregatik ez dago askatasun politikorik, jende ttipiak ez du askatasun politikorik. Nork ere ematen baitu ekonomi laguntza eta hark izanen du boza, harentzat politika indarrak. Ezin dezakegu beraz harria bota jende ttipiari, bere interesaren logika delako, bere "interes ekonomikoaren" alde bozkatu duelako. Baizik, dezakegu harria bota dependentzia ekonomikoari eta dependentzia horren azkartzaileei (Intxauspe, B. Marie, Labeguerie, Lecanuet, Barre, Chirac, etab.). Bururatzeko esan dezakegu dependentzia ekonomikoa handiago eta askatasun politikoa ttipiago, euskal aberriaren afirmazioa atzeratuago. Bozaren askatasuna izanen da ekonomi askatasuna izanen denean. Dei hau egiten dugu hegoaldeko indus-triatzaileei eta iparraldeko gazteei: EGIN DEZAGUN BERAZ ASKATASUN EKONOMIKOA ETA EGINEN DUGU ASKATASUN POLITIKOA.

M.L. UHAITZE

DEMAGOGIA BATEN ILUSIOA ETA ESTRATEGIA.

HAUTESKUNDEETAN: ESKUINAREKIN LAMINEN KONDAIRAN ZE HAR.

Arbasoen kondairan eta ipuin zaharretan agertzen zaizkigu laminak. Hauk ziren gizon ttipi batzu, suzilotik beheti eta gaeuz gau ibiltzen zirenak. Erdaraz "lutin" izena hartzen digute. Baina ez dut uste lamin guziak hil direnik edo aurreramen-duak estali, aldatu baizik ez dira. Eta gaur, hain zuzen, izendatzen zaizkigu: Inchauspé, Duboscq, Chirac, Giscard eta Paris. Hona gure lamin onegile eta saildu paregabeak, Euskal jende xehearen salbatazaila ezin ukatuak. Zergatik esaten dizudan arrazoi hau orain bertan ulertuko didazu eta horregatik goaz eskuinaren bideen aztertzeraz.



Inchauspé.



Inchauspé Jauna.

Amets batetik amets batera gabiltza eta gaurkoak ere bere izena daduka: "Contract de Pays" edo herrien, herrialdeen arteko kontratua. Zer da Herri-arteke kontratu famatu hau? Mamiari dagokionez, DIRUA. Asko diru, 450 milioi libera zahar Baigorri-Garaziko kantonamenduarentzat. Berdin egin da Zuberoarentzat. Asko diru dela esaten dugu, ezen jende zapalduaren diru xuhurtziari gonbaratuz asko delako. Baina ezer ez dela hori, Iparraldearen ekonomia ezari begiratu, hori ere egia. Hogeitau huetan 100etarik o/o 25 euskaldun hustu zaigu mendialdea. Esan nahi baitu ehunka eta milaka kanporatu direla Ipartarrak. Batipat, Hego eta Ipar Ameriketara. Horregatik gaur milioiak dira atzerrietan. Hau denau, fenomeno larria dugu ezen nork dezake estima eta istudia zenbat haurren eta gazteen posibilitate galdurik dagoen Euskadirentzat. Zenbat estatu atzerriko gizendu ahal ditu Euskaldun Arbolak? Eta oraino larriago dena, gure odol bizia, gure dinamika bera dugu galdu. Ez gaitezen harri beraz, gaur eskuinekoak baldin bagara populuan. Hau, populuaren zahartzeak dakarkigun logika zuzena baizik ez dago. Nork uka mugimendu zigargari honek, xurgatze eta huste deitoragarri honek hil zorian ezarri gaituela. Eta orain bertan jartzan ez direngatik, eta gure herria saldu dutenengatik gara egoera horretan. Zenbat urtez oraino jasan dezakegu horrelakorik? Nire ustez, ez dezakegula horrela segi beste 10 urtez gehiago argi dago.

ESKUINAREN POLITIKA ZER IZAN DA.

Nortzu ditugu euskal eskuinekoak edo hobe-kiago esateko frantses eskuinekoak? Burjeseria dugu. Burjeseria hori ez da gaur jaioa baina da aspaldikoa. Hain zuzen, mendialdean batipat, gure aitek ezagutu dituzten burjesen semeak ditugu gaur botere politikoaren jabeak. Dirua maite dutenak eta boterearentzat bizi direnak dira. Halabaina,

Inchauspé jauna eta zainhoriaren politika.

betiko esana da, diruak sortzen duela boterea. Beraz, eskuinaren lehen garaipen sakona izan da: politika boterearen ez galtzea. Honen bigarren estrategia izan da Paris benedikatzea eta Parisi euskaldunen saltzea, gerretarako eta lanerako. Hain zuzen, langileak behar direnean, euskaldunak hor dira eta hor dabilta emigrante baten antzeko. Portugesen edo Iparafrikakoan irudira. Hona burjeseriaren politika higuina, hogeitaz eta gehiagoz praktikan eman digutena.

Horik denok orain artekoak baldin baditugu, gaur hauteskudekari erabaki digute 450 milioi irrigingarri hori. Zer uste ahal dute, hondamendiko ekonomia triste hau, horrekin arrapiztea? Denek ikus dezakete ezin daitekeela, diru hori ala deus, berdin dela. Beraz argi dago laguntza hau denok, beste arrazoirik ba digutela. Hauteskudeena batipat! Baina benetan damugarri zaiguna, sakonago doa: diru horren bitartez Inchauspé jaunak mobilizazio haundi bat egin eta egiten duela. Hauteskundeak horrela apailatzen dizkigu Inchauspek. Nekazari, komertzialari, ofiziale ttipi, ostalari, irakasle, zahar eta gazte biltzarrez biltzar dabilta. Kontsultazio demokratikoaren arrazoi faltua eman digu. Ba dakigu ilusio bat baizik ez dela eta ezin uka diru horren inguruan, eta horren bitartez elkartasun mitozkoa oinharritu digula.

Hain zuzen, antagonismo guztiak biltzarreetan dabilta, adibidez, turismoaren aldekoa eta kontra-koa, nekazarien aldekoa eta kontrakoa etab. Nabari da beraz, azken orduan Inchauspek bere klase kategoriarentzat erabakiko duela. Pronostiko errealistena dela uste dut: nekazariak izorratuak eta bere aldekoak Inchauspetiarrak faboratuak. Dena dela, abilki ari zaigula Inchauspé eskuindiarra, ezin da ukatu. Hots, gose dagoen ardiari soroa eskaintzen bazaio, janariari buruz bide egingen du. Erdaraz esaten digute, hori dela "la politique de la carotte" edo zainhoriaren politika. Ez ahal du besterik obratu bere politikari bizi guzian? Politika honek ba digula beste helbururik ere argi eta garbi daku-sagu: jendeak konturatu behar duela besterengandik, Inchauspéren eta Pariséngandik erdiesten duela bere salbamendua, seguritatea, esperantza bera. Mobilizazioa bai, baina desmobilizaziorako! Hain zuzen, Inchauspek inork baino hobekiago daki zenbat den arriskugarri populuak pentsa dezan, BERAK BERE GEROA egin behar duela. Horregatik, oroiterazi behar zaio Paris dugula AITA. Hots, beti berdina dugu eskuinaren estrategia: irresponsabilitatearena. Egia da benetan, laminak kaltegarriak eta okerrezkoak direla BETI. Noiz erreko ditugu?

M. L. UHAITZE

Donostiako estiloa.

AUZMENDI



AUZMENDI, Sastre. Vergara I.

preso sozialak: 40.000 marginatu



HIDOS
DE →
PUTA



COPEL

PLATAFORMA: 1.- LEGISLACIÓN PENAL
2.- ADICIÓN LEY PELIGROSIDAD
3.- ABOLICIÓN REGLAMENTO DE PRISIONES
4.- DEPURACIÓN JUECES Y MAGISTRADOS FASCISTAS



APROX. A LA
COPEL


Duela guttirarte, ez ziren asko preso sozialen problematikaz arduratzen zirenak. Gehienok haien esistentziaren berri edukitzera iristen ginen ozta ozta.. Politikoen arazoa bestelakoa zen. Inork ez zeritzon bidezko, herri interesen alde burrukatzearen, pertsona

bat espetxeratzeari. "Komonunen" arazoa desberdina zen eta Amnistia Osoa aldarrikatzean ez ginen sozialetaz oroitu. Ez zigun kezka handirik sortzen jende modu hau hantxe sarturik segitzeak. Horik zerbait txarrrik egitearren egoten baitira beti.

PRESO SOZIALAK

Hamar mila baino gehiago dirateke, gaur egun Estatuko gartzeletan dauden preso sozialak. Hala ere, presondegiatako ohizko populazioa, hots, sartu irtenka ari direnak, askoz gehiago dira, berrogei milatik gora.

Arazoaren esplikazio klasikoaren arauera, presoaren berezko gaiztakeria delinkuentziaren kausa nagusia.. Gaizkileak izanik, jatuak diren lege batzu hauten dituzte eta bidezko defendatzen dituzte, gizartea defendatzen ahal izateko, berauk gertzelaratzea:



Basurtuko autozaurituak

Baina preso sozialen jatorriari begiratu, zenbait datu interesgarri aurkitzen ditugu..Euskal Herrian o/o larogei emigranteak edo hauen semeak dira, o/o 50 koalifikatu gabeko langileen semeak ditugu,o/o 82 baino gehiago, hiri handien hauzategi pobre eta industriatsuetakoak dira, o/o 30 beren familietan problema latzak izanikoak dira, guraso bat falta zutelako, hauk banaturik bizi zitzaizkielako edo ezkongabeko amen semeak direlako. Aski argiro ikus liteke, beraz, preso sozialak sozialki zapalduen dauden sektoreetatik sortzen direla batez ere.

Delinkuentziaren kausa nagusiak ez dira, bada, moralaren arloan bilatu behar, erakutsi ohi dituguten bezala. Sistemak sorturiko lunpena, miseria eta langabeziari loturik agertzen zaigu gehienetan deliktu soziala.

Gartzeletan daudenen o/o 90 erreformategietatik pasatutakoak dira. Hauexek dira gizarteak prestatu dituen delinkuentzi eskolak. Norbait erreformategira edo gartzelara sartzean, sistemak zirkulo hitxi batetara bultzatu egiten du beraz, eta ezinezko gertatuko zaio gehienetan hortik ateratzea. Erreformategiak gartzelara baitarama eta gartzelak gartzelara.

DELIKTUAK

Estatuko Zigor Arautegian, desproporzio izugarria dago deliktu eta beronen zigorraren artean. Bospasei mila pztatako. ohosketa batengatik, sei urterarteko kondenak eman ditzaizke epaikariak, eta ohosketak bat baino gehiago izanik, hamazortzi urterarte hel daiteke epaia. Eta pentsa dezagun presoan o/o 80 jabego pribatuaren kontrako deliktu ttiki hau-

engatik gartzelaratuak izan direla.

Bitartean, dibisen kanporatzaileak, lurren espekulatzailak, herri interes guztien aurka Lemoizeko Zentrala eraikitzen ari direnak, miseriako soldatak ordaintzen dituztenak, MATESAkoak, REACEkoak eta beste halako gizon dirudun eta trebe asko lasai eta librerik bizi daitezke, beren "negozioetara" dedikaturik, hauexek ez baitira inondik ere delikuentetzat kontsideratuak izanen. Kasurik txarrean dorpenei gerta dakieke diru zigorren bat ordaindu beharra, baina honek ez die buruhauste handirik sortuko, ongi baitakite noren izerditik errekuperatuko duten.

Barneraturik daudenen beste zati eder bat, "Arriskutasun Sozialaren Legearen" biktimak ditugu. Lege honek, beste gauza askoren artean, nork bere sexualitatea libreki erabiltzeko eskubidea ukatzen du, prostituzioa, abortua, homosexualitatea, drogen erabilera, alkoholismoa eta gizaratearentzat "arriskugarriak" diren portaerak zigortuz..

GARTZELETAKO EGOERA.

Azken sasoiotan biziki lastu dira gartzeletako kondizioak eta lasai esan genezake, frankismoaren garai txarrenetan baino gaizkiago bizi direla presoak. Gogora dezagun, honen ideia bat hartzeko, Martxoaren 13an Carabanchelen funtzionarioek kolpeka aseinatu zuten Agustín Rueda Sierra anarkista gaztearen kasua.

Santoñako "El Due-so"ko presondegian dauden lauhun presoentzat, COPELekoak gehienak, egunero erregimena beldurgarria da. Patiora hiru egunetik behin bakarrik ateratzen dituzte eta hori ordu laur-

den batetarako. Denbora horretan, kaka ontzia hustu, zeldetan ez baitute komunik, ekonomatuen janariak erosi, dutxa hartu eta, astirik geratuko balitzaie, noski, paseatu egin behar izaten dute. Erretzea debekaturik dago. Higienea zer den ere ez dakite. Duela gutti, Santoñako fiskalea marea egin zen zelda batetara sartzean, bertatik zerion usainagatik.

Huescako gartzela "psikiatrikoa" omen da, eta bertara eramaten dituzte "psikopatak" eta beste gartzeletan asaldatzeko joera handiegia azaldu duen zenbait preso. Moeta guztietako tratamendu ez legalak erabiltzen dituzte egunero presoetaz: Elektroshockak, Haloperil, Nemactil, Lagartil eta halako beste produktuen gehidosiak. Nazi-en praktketan inspiraturik abarrasa injektatzera iritsi dira, presoak "lasaitzeko". Psikiatriko honetatik, pertsona legez ezeztaturik ateratzen da asko.

Basaurin orain, prentsa eta telebista kendu dizkiete, komunikaziorik eza handiagotzeko. Negu gorriaren hotzaz eta, azken Otsailean gertatu bezala, nahiz elurra jausten ari, goizeko 7etatik 1tak arte patioan egon behar izaten dute presoek.

Janaria eta osasun kondizioak, gaixotzeko modukoak dira toki gehienetan. Etxekoen bisitaldiak urri eta motzegiak. Eta, zer esanik ez, ezkonkideen arteko sexu harreman minimorik izateaz pentsatzea amets hutsa da. Zigor zelden arazoak bere betikoan dirau. Azken burruken ondorioz, presoek berorietan sarturik, guztiz isolaturik, argirik gabe eta janari egokien faltaz eman behar izan dituzten egunak kontaezinak dira, hortik sorturiko kalte fisiko eta psikologikoak ezagunak izanik. Zerrenda hau ara luzagotu egin liteke.

Preso sozialen arloan

behialako politikoeekin bezala, mitifikazioak sortzeko arriskuarekin topo egiten dugu, eta gogora dezagun, esate baterako, "El Lute" hospetsuaren kasua. Horregatik, gure herriko errealitate konkretutik kasu bat jaso nahi izan dugu.

Ene izena Antonio Arevalillo Sanz da. Hogeitabat urte dut. Segoviako herri batetako naiz jaio-tzez. Bederatzi urtez etorri ginen Bilbora, aitak Bilboko portuan aurkitu baitzuen lana. Ordutik Zorrotzan bizi gara denok.

Hamalau urtez etxetik ihes egin nuen. Ez pentsa gurasoekin aparteko problemak nituelako. Ez, ongi samar konpontzen nintzen etxekoekin, baina leku berriak ezagutu nahi nituen. Bilbon bizikleta bat ohostu eta Mirandaino ailegatu nintzen. Dirurik ez neukan eta gose nintzen, harri batez, hertsirik zegoen okindegi baten kristala hautsiz, ogia eta pastel batzu hartu nituen. Gero gauaz, kamioi batetara sartu nintzen lo egiteko eta bertan harrapatu ninduten goardia zibilek pastel eta guzti. Bilbora eramane eta ni Amurrioko erreformategian sartzeko ziren, baina aitak ez zuen nahi izan eta salbatu egin nintzen orduan. Hauxe izan zen ene lehen lapurketa.

NOIZ SARTU ZINTUZ- TEN GARTZELARA LEHENBIZI?

Hamasei urtez berriz ihes egin genuen etxetik, nik eta beste bi lagunek. Mekanikaria naizenez, ba nekien ondo automobiletaz nola lan egin. Bilbotik Madrileraino joateko zazpi bat automobil ohostu genituen. Ene adiskideak Valladoliden harrapatu zituz-



Gehienak erreformategietatik datoz

ten eta bertako erreformategian sartu. Gero, istripu bat gertatu zitzaidan automobilez nindoala eta Elchen (Murcian) zibilek atxilotu ninduten. Murcia-ko gartzelara sartu, hamasei urtetatik gorako jendea ez delako erreformategietan sartzen. Bi hilabete pasatu nituen orduan espetxerik espetxe eta azkenez, Basahurin atera nintzen kalera. Berriz presondegi bat ez zapaltzeko asmo finkoa nuen irtetean.

ETA GERO?

Geroztik hamar aldiz edo egona naiz barnean eta ez zait gogoratzen zenbat bider detenitu nauten. Guztitara lau urte baino gehiago pasatu ditut gartzelan sartuta. Gehienetan automobilak ohostearren eta bestelako lapurketa tikiengatik izan da. Mallorcan behin, atraku bat egin genuen harmaz. Judizioan dena batu zitzaidan, eta automobilak, atrakua eta harma zirela, fiskalak hogeitahamar urte baino gehiago eskatzen zizkidan. Zorionez, Franco hil egin zen eta indultuaz atera nintzen.

Basahuri, Martutene, Iruinea, Santandere, Segovia, Alicante, Murcia, Lerida eta Ocañako gartzelak ezagutzen ditut. Bai eta Madril eta Logronioko presondegi psikiatrikoak ere, erotzat hartzen baininduten.

Segovian Arrizabalagarekin eta ihestean parte hartu zuten gehienekin egon nintzen. Ni neu oso ederki konpontzen nintzen politikoeekin.

Batzutan ezer egin barik ere detenitu naute, antezedente hutsengatik.

NOLAKO TRATUAK EZAGUTU DITUZU GARTZELA HORIETAN?

Gartzeletan ez dago tratu onik. Kolpeak, jipoiak, torturak eta zigor zeldak dira presoek egunero-ko ogia. Han barnean arin ikasten da beldurra, gorrotoa eta desesperoa zer diren. Hiruzpalau aldiz autozauritu behar izan dut neure burua, funtzionarioen kolpeetatik libratzearen.

Presoak bizi diren kondizioak sinestezinezkoak dira, penagarriak. Oca-

ñan hotzaz eta janari faltaz, anitzek tuberkulosea harrapatzen zuen. Madril-eko psikiatrikoan medikamentuen gehidosiengatik, infarktuzko heriotzeak jaizotzen ziren sarri. Janaria irenstezinezkoa da askotan eta oso urri.

Behin Basahurin, zigor zelda batetan sarturik nengoela, "me cago en Dios" bat bota nuelako. Don Andrések, gartzelako apaiza eta kaperau militarra berau, bekatu larri hori meditazioaz bakarrik barka zitekeela esanik, berrogei egun gehiago pasarazi zizkidan zigor zeldan, nire errua barkatzeko meditazioa egin nezan. Funtzionariak, Zuzendariak, apezak, denak dira errepresei boak gehi-gehienetan, eta gaur egun inoiz baino gehiago.

NOIZTIK ARI ZARA COPELEN ALDEKO KOMITEETAN LANEAN?

Ihazko Irailetik Basahuritik irten eta berehalaxe sartu nintzen komiteetan. Kalean jendea ez da normalki konturatzen lan honek duen garrantzia. Bere buruak libberaltzat hartzen dituen pertsona asko ari da COPEL eta komiteez hitz egiten, baina esan diezadetela niri zer egin dezakeen urte-tan egunero lanean aritu izan den presoak, kalera ateratzean, dirurik gabe, etxerik gabe, eta inork lanik ez diola eman nahi ikustean? Zein da geratzen zaion irtenbidea? Bere burua goseak hiltzen utzi?

Komiteetatik pertsona hauei laguntzen saiatzen gara, baina Zigor Kodigoa eta Gartzel Erregimena aldatzen ez diren bitartean, ezingo da sozialen arazoa konpondu.

copelen erreibindikapenak

"LEGERIA ERRE-
PRESIBO ETA ZIGOR
INSTITUZIO FRANKIS-
TEN ABOLIZIOAREN
ALDE: JUSTIZIA HE-
RRIKOI BATETA-
RANTZ".

1) Zigor Arautegia eta Hauzibide Kriminalaren Legearen erreforma-kuntza sakon eta demokratikoa, egiazko justizia herrikoi bat lortzeko eta ez, oraingoa bezala, klase menperatzailearen zerbitzuko.

2) Jurisdikzio berezi guztien abolizioa, hau da, Arriskutasun Sozialaren Legea, Osasun Publikoarena, e.a., zeren hauen zentzu bakarra Diktadurak sorturiko errepresioaren instituzionalizaketaren barnean baitago.

3) Gartzela arautegia eta bestelako zigor instituzio frankisten abolizioa. Presoen erakundeen legez-tapena, gure eskubideen errespetatzea eta gertatzen diren irregulartasunak eritzi publikoari salhatzea lortu ahal izateko. Askatasun demokratikoak presondegi guztietan.

4) Gartzeletako funtzionari, polizia, fiskal eta epaikari frankista guztien depuraketa. Herri hauzategiak eta gartzelen kontrol zuzenerako herri batzordeak sortu.

5) Gartzel Arautegi berri bat sortu arte, premiazkoa da hobakuntza zabal bat egitea Estatuko gartzela eta presondegi guztietan; batez ere, Osasun, Higiene, Elikadura eta Komunikazioen arloetan. Zigor zelda ezgizakorren

betirako herstea eta gartzela guztietako lantegietan ematen den superesplotakuntzaren bukatzea. Bai eta COPELen kontrako errepresioaren amaitzea.

6) COPELek ez du gartzelen transformakuntza hau erabatekotzat jotzen, gaur eguneko gartzelak, hitxiak eta zigorlekuak direnak, zentru zabal eta dinamikoak bilakatze-ko urrats bat bezala baik. Hauetan deliktua egiten duena bizi eta emozio beharizandun pertsona bezala kontsideratua izanen da, zirkunstantzia guztietan errespetatuak izanen zaizkion eskubide batzuekin.

Geu marginatu sozialak izan garela eta garela kontutan hartuz, eta hauzategi diskriminatzaile, errepresibo eta faxistek juzkatuak izanik, gizarte justuago baten eraikintzan parte hartzeko, denoi oportunitate berdinak emanen dizkigun Amnistia Orokorra eskuratzeko eskubidea dugula uste dugu.

Azkenez, hauxek dira gure organizazioaren helburu nagusiak: Estatuko preso guztien organizazioa iristeko oinharriak ezarri; geure xedeak lortu arte, aipatu erreibindikapenen aldeko burruka bultzatu; eta zapalkuntza modu guztien kontrako herri mobilizapenekin bat egin.

Delinkuente "handiak" ez dira bertotik pasatzen

superesplotakuntza gartzeletan

Nahiz eta sozialek egunero, kaleko langileen moduan, zortzi orduko lanaldia egin behar, hiru mila pezeta baizik ez zaie ordaintzen hilabetean. Diru hau oso guti izan arren, ez dago inolako aurrezpenik egiterik, zeren janariaren eskasiagatik, derrigor-tuta daude presoak ekonomatuaren zerbitzuaz baliatzen. Produktu askoren prezioak, kalekoak baino altuagoak dira bertan, eta horrela irabazten duten apurra gartzelan uzten dute halabeharrez.

Ez dute, langile arruntan antzera, Asegurantzia Sozialik eta kalera irtetean, lanik aurkituko ez balute, eta normalki gertatu ohi dena da berau, ezin izanen dute langabezi-azko laguntzarik jaso. Maiz jazotzen da preso bat bere kondena bete ondoren kalera ateratzean, etxerainoko bidaia egiteko beste dirurik ere ez izatea.

Arazoa konpondu nahi baldin bada, bederen, gartzela barneko lana justuki ordaindu behar da, edo bestela kaleko gutieneko soldataz behintzat. Ofiziorik ez dutenek, egiazko profesional prestakuntza egoki bat hartzeko bideak behar dituzte. Eta kanporatzean lan barik baleude, izan dezatela beste

langileek legez, langabezi-azko laguntza jasotzeko eskubidea.

Gaurko presondegiak, presoak gizartean bizitzera laguntzeko bide izan beharrean, zigorleku hutsak eta delinkuentziaren sortzaile nagusiak gertatzen dira.

Arazoaren konponbideak, erregimen eta instituzio zeharo berri eta desberdin batzutatik pasatu beharko du. Erregimen zabaleko gartzelak, beharko dira egin, eta ez dakigu leku berri hau nola izenda, oraingo gartzelen antzik ere ez bailukete gorde behar eta hau herriaren kontrolpean ezarri.

Hala ere, ondo dakigu, arazoaren kausa nagusia den sistema honek maila guztietan sortzen duen desberdintasuna, osoki deuseztatu arte, guztiz gizarte berri batetan problema hau ez dela konponduko. Eta seguruen ez dugu geuk hori ikusiko.

COPEL, BETIKO AHANTZIEN OIHUA.

COPEL (Coordinadora de presos en lucha), beronen aldeko komiteak eta AFAPE (Asociación de familiares y amigos de presos y expresos españoles) ditugu sozialen arazoa marginalizotik ateratzen gehien arduratu diren erakundeak.

Carabancheleko gartzela, 1976.eko Abuztuan egin zen mutin batetan sortzen da COPEL. Amnistiaren legea politikoentzat bakarrik izanen zela ikusteak sortu zuen frustrazioaren aurrean, preso sozialen burruka aurrera erama-




Gartzelak suntsitu beharra

teko erakunde baten premia ikusten da.

Sortu berria zen mugimendu hau desegiteko asmoz, Estatu osoko presondegietan zehar barreiatzen dituzte COPELekoak. Baina honek guztiz kontrako ondorioak ekarriko zituen, zeren mugimendua desegin beharrean, Estatuko gartzela gehienetara hedatzea lortzen baitute horrela.

Hasieran lege bideak probetxatuz, eratu nahi zituzten beren ekintzak. Baina laster, instantzia eta salhapenen bidez, dirua gastatu baizik lortuko ez zutelako oharturik, norabide berri eta gogorragoetatik abiarazi behar izanen dituzte COPELekoek beren burrukak. Harez gero, ohitu egin gara COPEL-en izena mutinei, grebei eta bestelako ekintza bortitzei loturik ikusten. Lan eta gose grebak ugari izan dira Estatu osoko espetxeetan. Mutin hauetan zenbait gartzela zeharo suntsiturik gertatu da eta sozial batzuz bitzita galtzera iritsi dira, Zaragozan kasu. Gizonezko hauen desespeoak po-



sible bihurtu ditu autozauritzeak eta zainen mozketak. Animalientzat ere krudeltzat joko genituzkeen kondizio horietan, errazago gertatzen da bizarlabanak, kristal zatiak, xorrotak, goilareak, metalezko eragingailuak eta bestelako edozein gauza irenstea.

EUSKAL HERRIAN

Gure herrian, COPELen aldeko lehen komitea ihazko Abuztuan osatzen da Bizkaian. Geroztik mugimendua indartuz joan da eta Bilbo inguruan aurkitzen da indartsuen gaur egun. Barakaldon, Deustuan, Basahurin, Errekaldeberrin, Otxarkoagan, Portugaleten, Sestaon, Unibertsitatean eta Ondarroan ari dira lanean Bizkaiko komiteak, Berrizen oraintxe hasi dira. Bizkaitik at, Eibarren, Gasteizen eta Iruinean ere ba dira sozialen aldeko taldeak.

Komite hauetatik, COPELek gartzela barnean daramatzen burrukei laguntzen saiatzen dira. Gartzetatik informazio atara, presoekin familiekin kontaktatuak bilatu, herria in-

formatu, gartzetatik ateratzen direnei laguntza eman, hitzaldiak eta mobilizazioak antolatu, hauek dira komiteetan eramatzen diren lan nagusiak. Martxo honetan Bizkaian "Boletín de los comités de Apoyo a la COPEL" aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu dute. Egiteko duten lana izugarria da, eta hori betetzeko prest daudenak, oraingoz ez dira asko. Anaitasunatik, gure eskerrak eman behar dizkiegu komite hauei, lantxo hau prestatzerakoan eskaini diguten laguntzarengatik.

Euskal Herrian burruketarik garrantzizkoenak, ihazko Urrian, Hazilean eta Abenduan burutu ziren. Sasoi hartan, Basahuriko presoek zenbait ekintza prestatzen dituzte indultua erdiesteko. Autozauriketarako gertatzen dira eta hamazortzi preso Basahuriko ospitalera eraman behar dituzte. Bertan aski tratu txarra eman zitzaizela esan behar dugu, mediku batzuk, presoak oraindik osatu gabe daudela altan ematen dituzte, ez baitzuen merezi, haien ustez, halako jende moduz oheak okupaturik egotea. Hain zuzen ere, Basahurin eta oraindik argitu gabe dauden guztiz zirkunstantzia ilunetan, Las Corteseko prostituta bat hilda agertzen da.

GARRANTZIRIK GABEKO HERIOTZE BAT.

Hazilaren zortzian, Basahuriko zirgorgela batean, María Isabel Gutiérrez hilik agertzen da. Gorpua guztiz erre dago eta bertsio ofiziala suizidioaz


mintzo da. Haatik, inork gutik sinets ezakeen hori. Ezinezkoa baita zeldetan poxpolorik sartzea, presoak biluzi eta arakatu egiten baitituzte beti hara sartu aurretik. Ez da bestalde konprenitzen, nola ez zituen inork neskaren garrasiak entzun, nola ez zuen inork kea ikusi edo eta usaina hartu.

Hiletarako, Bilboko bostehun bat prostituta biltzen dira elizara. Hasieran ez zen deusik egiteko asmorik, baina, handiegia da puten haserrea eta manifestazioan abiatzen dira Las Cortes-en zehar Bilbo erdialderantz. Egun hartan putetxeak hertsirik egon ziren.

Ekintza hauen ondorioz, gero desagertu egingo zen Marginatuak Koordinatzeko Komitea sortzen da, COPELen aldeko komiteak, Las Corteseko prostituten komitea, objektoreak, EHGM, Euskadiko GAY gazteria eta Bizkaiko Emakumeen Asanblada partaide direlarik.

Hitxialdi bat egiten da Basurtuko ospitalean eta COPELen aldeko komiteetako zenbait lagunek gau batzu ematen dituzte Portugaleteko zubira igonik. Las Corteseko komiteko hamabost prostituta Arenaleko zubian kateatzen dira. Bitartean talde politikoez aparte, deus gutti egiten dute talde hauen alde. Inork ez ditu, agian, puta eta kinkien saltsa hauetan bere eskuak zikindu nahi.

J. Llerandi



madriletik

Susma daiteke, nolabait, nola ikusiko diren Euskal Herritik Gobernu honen preautonomikoak; hau pre guztien Gobernua baita, nola ez!

Neuri ere nerabazaroko oroitzapenak dakarzikit. Eskena, Donostian Norteko estazioan neguko



edozein igande hotz eta euritsu artean. "Viuda de Solano" egiten zuen oihu txapela kalatuta zeraman gizon txiki hark andenetik zihoala gora eta behera. "Viuda de Solano"!

Eta ohizkoa nuenez, bidaia luze eta nazkagarri haik arinago egin zekizkidan, paketerik handiena erosten nion. "Zenbat da?" "Bost pezta". Beti uste izan nuen karamelo pakete handiena erosiz, haren graziaz, Madrilerako bidaia hura errazago egin zekidakeela. Alferrik: sei urtez hilero enplastu berdina ipintzen bidaia hari eta sei urtez lehen eguneko zapore nazkagarri berberarekin heitzen nintzen Chamartinera; ahoan azidoa banukeen bezala.

Gobernuak uste izan duke Espainiako nazio arazoak loak har ditzan karamelo sorta bat eskaintzea zitzaiola komeni. Injustizia handienetik, injustizia berberera eta errumeskeriapean kondenatu nahi ditu Gobernu zentralistak Espainiako herrialdeak. Katalunia izan lehen lurralde preautonomikoa, haren ondoren, Euskal Herriaren zati bat izan da, eta azkenik, gaur egun asteen Balentzia, Galizia, Kanariak eta Aragoa. Noski, hauen ostetik preautonomizatu berriko dituztela Asturias, Extremadura eta Aragoa gutienez. Nahastearen maliobra, guztia. Orain arte imperioaren militante frankistak izan direnak, gauetik egunera, handik eta hemendik preautonomikoak ereiten dihardute. Gobernu keinutia dugula... bistakoa.

Josep Benet katalan senatoreak esan duenez —nik neuk honela interpretatu diot bederen—, Katalunian orain sei hilabete dute Gobernu preautonomikoa baina ez du ezerterako balio izan, batez ere Madrileko Gobernuak ez duelako inongo botererik —hau ote preautonomizatzea, keinu egitea?— katalanen eskuetan utzi. Ba liteke, bestalde, guztia tontoen lasaitzeko izatea, ba liteke...

Antzeko zerbait derrakegu Euskal Herriko zati horrek duen preautonomikoari buruz. Oraingoz, Euskal Herri horretan dagoen Gobernu preautonomikoak, ezer baino gehiago, "zuzendari izpirituaren" papera egiten ari baita. Bai, halaxe da; kolegioetan egoten ziren zuzendari izpirituak haien gisakoak dirudite. Gobernuko ministrariak, prentsan irakur daitekeenez, Bilboko partea zinematokiek greba egiten dutela Iglesias jaunarekin hitz egiten dute; halaber ere, Donostian, eskuin faxistaren basakeriak gertatu direnean Benegas jaunarekin mintzatu dira donostiar zenbait. Puntu eta zotinak, ezen oraindik Rubial jauna —lehendakari da, ezta?— nigarrez ikusiko dugu bere sendimendua ageri zaiola inpotentzia artean.

Baina bakoitzak jakin beza norekin galdu duen birjinitatea.

Preautonomikoak gonbara daitezke, hemen Madrild alde honetan, Ministraritzen ate atzetan egoten diren alferrezko kaxa horiekin; "Reclamaciones"; non bota dezakezun paper bat eta segur zaudeke kolore marroia hartuko duela inoren ukipenik ukan gabe.

Hala eta guztiz, Gobernu preautonomikoen ministrariak zerbaiten aurrean beren eritzia eskatzen duenean herriak, arinki egiten dituzte deklarapenak prentsan, baina honek ere keinuaren traza ematen digu. Gobernu Preautonomikoek prentsa bulegoak izatera kondenatuta daude; noski, ponpa eta inzentsu artean. UCDren hitzetan sinesten duenak ez du Arantzazuko Ama Birjinan bakarrik sinesten, Tubalen mitoan ere baizik.

Eta prentsa aipatu dudanez, hau baita Estatu honetan liberalizatu den gauza bakarra nahiz liberalik ez egon —aurreko gizaldikoak ez ziren liberalak, patriotero hutsak besterik ez baitziren—, ikus dezagun bada "adierazpen libertatea" zertan dagokeen mementuon. Zeren palazio maliobra guztien azpitik eta preautonomiko absurdu horien atzetik, hitz batez, itxura handiosaren atzetik, Boadellasen kasua baitago lehen Saidaren gertaera bezala; eta, nola ez, milaka arazo: Andalusiako jurnalarien arazoa, Oreja Agirreren kanpo harremanak, laborarien arazoa han hemen eta abar gehiegi hemen aipatuak izateko. Gobernuak ez du arazoak konpontzeko asmorik, hauei luzamenduak emateko baizik.

Eta munizipalak zer kristo? "Declaración programática" bakarren batean irakurri baikenuen 1977.aren urtemugan eginen zirela. Eta orain diotenez konstituzioa baieztatu ondoren eginen dira. Batek daki! Hau guztiau ene amonaren ipuinak bezalakoxeak dira, baina graziarik gabe, amona defuntuak grazia handia zuen eta.

PSOE izan da, halere, azken asteotako vedettea, utzi baitu konstituzioko bilerak esanik UCDren maliobra antiautonomikoak ezin dituela onhartu. Hala ta guztiz, inork ez duelako esandako hori sinesten, esaten du esan PSOEek beste negozioren bat daramala eskuartean, hain zuzen, PCE bere kongresua gertatzen ari den bitartean eta UCD kili-kolo dabilenez, oposizioaren nagusigoa bereganatzea, aspaldian gehiegi baitzebilan F. Gonzalez Suarez jaunarekin. Oposizioaren nagusigoa hartzea behar gorria zaioke PSOERI bere sindikatuak



—UGT— ez baitu gauza haundirik egin langileria artean iragan hauteskundeetan: uste zutena arautzat ezarriz bederen.

Dena den, PCE kongresuaren aurrean dagoela, eta bere militantzia nola bideratu dela zuzendaritzaren helburua —zertzu dira, bestela Zaragozara Carrillok egin dituen bisitak?—, PSOEren kolpe politikoa, kolpe zentrala besterik ez dateke. Dena ikusiko. PSOEren kolpe politikoa, kolpe zentrala besterik ez dateke. Dena ikusiko. PSOEek botere alternatiba izateko asmo hori seriosegi hartu du gauza onerako eta halabeharrez palazio maliobreakeriatan trebatuko arinki. Ezkerrak bere izateko zentzua ez ote duen galduko galdatzekoa da; ezker parlamentariak, noski. Ezkerrak ere espainiar Gobernu guztien zentralitatea ikasiko, ikasi behar-ko bide honetan.

Gobernuak ematen dituen karameluek ez dute ezertarako balio, goizean, beilan pasatako gauaren mihi latz eta nazkagarria sentitzen baita.

Baina gaurkoz ene dirua irabazia dudala uste dudanez: uzten zaituztet bakean.

Juanrra Oiharbide

Madrilen, Martxoak 16

FRANTZIA: ezkerraren porrota

Prebisio eta esperantza guztien aurka, eskuina atera da garaile Frantziako azken hauteskundeetan. Prebisio guztien kontra: inkesta guztiek eman ohi zioten abantaila, botu-asmotan bederen. Esperantza guztien kontra: aldakuntzaren esperantza handia zen. Ba, huts egin du esperantza horrek: aurrerantzean ere, dagoeneko 20 urte luzetan agintean egon direnak berek jarraituko dute, aurpegi berek, problema berek.

MARTXOAK 19:

HAUTESKUNDEAK

Bi alditan bakoitzeko, eman ohi da boza Frantzian. Oraingoan, Martxoaren 12an eman zen botu indikatzailea; eta 19an botu erabakitzailea. Ezkerrarentzat egun haundia izan zitekeen hori, egun beltz bilakatu da. Eta hain beltz! Luzarorako hurruntzen zaio agintea ezkerrari. Ia ehun aulki gehiago ditu Parlamentuan eskuinak.

Frantses askoren deslirapena ez da esatekoa. Ezkerra eta agintea elkargaitz egin ohi dituen madarikazioaren bat dagoela Frantzian dirudi. Agintetik hurbilen oraintxe egon da ezkerria, Irailaren 22rarte behintzat. Posibletasun horrek esperantza asko biztu zituen. Denak hondatu dira berriz. Ez dezagun ahantz Michel Rocard Alderdi Sozialistako buruzagietako batek esan bezala, zortzigarren "rendez-vous" bat galtzen duela honekin ezkerrek Zortzigarrena, eta inportanteena agian. Lehendakaritzarena galdu zenean, Udaletxee-

takoa lortu ez zenean, geroari dei egingen zion beti sozialistak, Parlamentuko burruka hau irabaziko zuelakoan.

Frakasu hau dela eta, gauza asko jarriko da hauzitan ezkerrean. Autokritikak hasiak dira. Alderdi sozialistak egingo du handiena: azken urteotako alderdiaren taktika eztabaidatzen hasi dira, Programa Bateratua hauzitaratzen da, eta abar.

GALTZAILE

ETA

IRABAZLE

Baina jakina, ez dira denak galtzaile. Oro har, eskuina atera da irabazle eta ezkerria galtzaile. Baina bloke horien barruan alderdi bakoitzak ez du berdin irabazi eta berdin galdu.

Has gaitezen ezkerretik.

Programa bateratuan partaide ziren hiru alderdietan ttipiena, MRG edo ezkerreko errepublikazaleen alderdia zen. Ba, orain, hauteskunde ondoren, ahulago gelditu da, Parlamentuan aulkiak galdu egin baititu. Robert Fabre, Alderdiaren lehendakariak hauteskundeen gau berean deklarapen oso gogorak egin zituen Programa Bateratuaren aurka; eta djimititu egin du geroztik.

Alderdi honek baino gehiago galdu duela beste batek esango nuke. Ez, noski, Parlamentuko aulkitan, 12 bat aulki berri bereganatu baititu. Baina bai, espero zitekeenaren - eta espero zenaren - arabera. Alderdi Sozialista da, izan ere, hauteskunde hauetako egiazko galtzailea. Alderdi handiena bera da, baina ez bakarka jokatzeko adinakoa. Zundaketak eman ohi zioten ehuneko 30 horren orde,



Erregioetarako Ministrariaren Erregioak

20 pasatuxe bereganatu ditu: ez du horrela alderdi komunistarengandik aski tarterik. Honekin loturik jarraitu behar, beraz; eta bestalde, horrela segiturik, ezin aginterik lortu: Horra Frantses sozialisten drama.

Elekzioak galtzerakoan beti gertatu ohi den bezala, hasi dira alderdi sozialistaren barruan gorabeherak. Bi joera agertzen dira: Ezkerraren Programa Bateratu baf sakonduz joan behar dela uste dutenak (CERES taldekoak batipat); bateko eta besteko Programa hori dela eta komunisten jostailu izan direla uste dutenak eta, beraz, gaugerero Alderdiak bere nortasuna gehiago agertu behar duela uste dutenak. Nortasun hori agertzeko, Programa Bateratua eta Alderdi Komunistarekiko aliantzak bigarren mailara eramane beharko lirake, hauen ustetan.

Alderdi Komunista, galtzaileen artean badago ere, puntu askotan irabazle atera da. Ez du aginterik lortu, baina lortu nahi ote zuen, gero?. Erdietsi izan duena, zera izan da, halegia, Alderdi Sozialistaren ia pareko gelditzea. Alder-



Garailearen irria

diaren buruzagitzaren kalkuluak ongi atera zaizkio. Ikusteko dago hala ere, ezkerren batasuna haustea oinarrizko militantziak barkatuko ote dion.

Eskuin aldera jotzen badugu, hor aurkitzen ditugu egiazko irabazleak. Konfidantza osoa eta zihurtasun gehiagoz jokatu du Giscardek orain. Bi talde nagusi mamitu dira eskuinean. Hauteskunde hauetan biak atera dira pozarren. Jacques Chirac-en RPR alderdi Gaullista, nahiz eta aulki batzu galdu, eskuineko alderdirik inportanteena da; Alderdi Sozialistaren indar bereko, bestalde. Gaullismoak eragin politikoa galdua zuelarik uste zutenak, engainatu dira. Mantentzean dago Chirac-en garaitzapena.

UDF Giscard-zaleen koalizioak ehuneko 20tik gora botu ukaitea ere oso harrigarri gertatu da. Espainiako UCDren antzeko elkarganatze bat da, hauteskundeetarako prestatua, programa zehatzik gabea. Alderdi oso ttipi batetik sortu den Giscard lehendakariak, hauteskunde hauei esker, gehiago interesante bat biltzen du bere pertso-

naren inguruan.

Genekienaz gain, ondorio argi bat ateratzen da hauteskunde hauetan. Ba genekien bi bloke nagusi zegoela Frantzian: ezkerre eta eskuina. Beste hau ere ba dakigu orain: bloke bakoitza bi familia politikok osatzen duela, indar beretsukoak denak. Ezkerrean, Alderdi Sozialista eta Alderdi Komunista daude: Eskuinean, RPR alderdi gaullista eta UDF giscardianoa.

1977EKO IRAILAREN 22: EZKERRAREN HAUSTURA. Ezkerrak ez du irabazi. Zergatik?

Hauteskunde gaueko deklarapenean, argi eta garbi mintzatu zen Mitterrand sozialista: "Historiak esango du zein erantzukizun duen, eskuinarekin batean halako kanpaina Alderdi Sozialistaren aurka egin duenak".

Alderdi Komunistaren kontrako salhakuntza honek, militante sozialista dexente, besterik ezean, kontsolatu zuen. Aurreratzean, pentsatzekoa denez bi alderdion harremanak ez dira izan direnak izango. Nekez barka diezaioke Alderdi Sozialistak Komunistari egin dion joku txar hori.

Politika aztertzaile askoren eritzian, eta Alderdi Sozialistako guztien burutan, orain ez, Irailean galdu zuen agintea ezkerrek baino.

Irailean 22an Alderdi munistak beste joku batetan hasten da: Programa bateratuaren eskabideak gogortzen hasten da. Bost urte elkarrekin ibili dira, eta ez da etenik izan. Eta orain, hauteskunde definitiboetarako sei hilabete bakarrik falta direlarik, irteera ga-

beko kale batetan sartu nahi du ezkerre Alderdi Komunistak. Zalantzarik gabe, jokabide hau ez da intenziorik gabekoa. Ondorioak ondo neurturik sartu da joku hortan Alderdia. Hauzitan jar ezin daitekeena, Alderdi Komunistaren zuhurtzia da. Eta noski, kalkuluak ongi atera zaizkio: Bost urteotako fruituak sei hilabetetan txahutu ditu.

Sinesturik nago, Alderdi Komunistak ez zuela agintera iritsi nahi. Bi arrazoigatik nagusi: Bata, Alderdi Sozialista nagusituko zitzaielako, eta bera, horrela, alderdi zerbitzari bat izatera beharturik aurkituko zelako. Aginterik gabe oposizioan gelditurik, lor lezakeena zera da: Bere alderdia indartzea eta Alderdi Sozialista ahultzea eta barnetik joeratan zatikatzea. Agintea eskuratu nahi ezaren bigarren arrazoia, hau dateke: abadagune honetan lege antipopularrak onhartu beharko zituen, eta Alderdi Sozialistarekin batera politika sozial demokrata egin beharrean aurkituko zen. Irudiak galdu baino nahiago izan du aginterik gabe gelditu.

Alderdikieriaz ez da ezkerre agintera iritsi. Alderdiaren nortasuna ezkerrean ona baino maiteago izan duelako Alderdi Komunistak, hitz batetan esanik.

Zergatik ez du ezkerrek irabazi? Alderdi bakoitzak bere aldetik joan delako. Ez Alderdi Sozialistak, ez Alderdi Komunistak ez MRGk sortzen zuen aski konfidantzarik Frantsesarengan. Baizik eta batasunak!

joanes lekerika.



DOÑA PRUDENTZIA ETA IDEALISTA

Doña Prudentzia salmahaira hurbildu denean, Idealistak zerbait arraro ikusi du haren aurpegian. DOÑA PRUDENTZIA.— Kafesnea mesedez.

IDEALISTA.— Berehala ekarriko dizut.

Eskatutakoa prestatu ondoren, andrea zegoen lekura eraman du. Gero, zalantzan geratu da. Ba dirudi zerbait esan nahi duela, baina nola esan ez dakiela. Azkenik bota du esateko zeukan guztia.

D.P.— Ba al dakizu?. Negurira bizitzera goaz.

I.— Negurira?...

Eta gero irribarre ironiko batekin zerbait gaineztu du.

I.— Ez al da Neguri Langilera izango ezta.?

D.P.— Ez, Neguri Negurira, Pilar Careagaren txaletatik hurbil.

I.— Kontxo!. Hauzokide ilustreak izango dituzu, e?... Beraz, laster ez zaitugu hemendik ikusiko.

Doña Prudentzia hasperen bat bota du.

D.P.— Eta hain laster!. Aste Sainduko oporrak aprobetxatu nahi ditugu etxé aldaketa egiteko. Ez pentsa, zenbait pena ematen dit hemendik joan beharrak...Baina etxe berria oso ederra da eta berehala hartara egokituko garela uste dut.

Idealistak berriro irribarre ironiko batekin hitzegin dio.

I.— Ai, Doña Prudentzia!. Batzuzentzat krisiak ez du eragin handirik.

D.P.— Bueno, krisiak guri ere ukitzen gaitu. Geratzen dena da galdu ez dugun dirua nonbait sartu behar duzula. Boltsa ikusi nola dagoen, hondatuta. Bankutan eta Aurrezki kutxatan interes ttikia ematen dizute, bizitzaren debaluapenarena baino ttikiagoa. Pisuak erostea orain arriskugarria da, Patrimonioaren gaineko zerga berriak direla eta. Beraz, jendeak etxeak hobetu egiten ditu. Ikusi zer dakarren

gaurko egunkariak: Koloreko telebista gehiago saltzen dela eta zuri beltzeko guttiago. Jendeak ez du inbertitzen bere dirua, arriskugarria delako, eta bizitze erosoago bat eramateko erabiltzen du diru hori.

I.— Nik pentsatzen nuen Frantziako hauteskondeen ondoren, Boltsak igo egingo zuela.

D.P.— Nire senarrak Don Listok ere hori pentsatzen zuen, baina tamalez ez da horrela gertatu...Eta zein da hauteskunde horietaz zure eritzia?

I.— Ezkerra aurretiaz elkartu izan behar zuela. Lehen bueltan elkarturik joan balira, ondorenak bestelakoak ziratekeen.

D.P.— Nire senarrak Don Listok dio ezkertiarrik idealistak zaretela eta ez duzuela sentzu pragmatikorik. Zuen jendeari manifestazioak eta horrelakoak egitea atsegin zaio. Kaleak betetzen dituzue eta espektakuloaz errealtatearen ikuspegi faltsu bat lortzen duzue, zuen buruak engainatzen dituzue. Adibidez, Askatasunaren ibilaldian, 200.000, Euskal Herriko hiru milioirekin gonbaratuz? Gehiengo ixila ez doa manifestapenetara, baina bai botoak ematera. Eta gehiengo ixilari ez zaio atsegin gauza berria, lehengoa maite du, betikoa.

I.— Horretan zurekin nago. Horrengatik ene ustez, ezkertiarren indarra elkartasunean dagoela uste dut. Zuek zuen alde tradizioa duzue, gizarte bat zuen erara eta komenientziara antolatua, eta aspaldikoa. Ezkerrari abenturismo kutsua kendu nahi badiogu, segurantza eta seriotasun bat eman nahi badiogu, hitz batez adineko jendea, eta ez naiz ari aberatsez, pentsionista humilez baizik, gureganatu nahi badugu, beste era batetara hurbildu behar gatzazkio. Gazteak eta adinekoak ezberdinak gara eta bakoitzari bere lengoaiari hitzegin behar diogu.

Dagoeneko Doña Prudentziak bukatu du re gosaria.

D.P.— Bueno, Idealista. Orain ez dakit noiz etorriko naizen, baina Bilbora natorrean, noizean behin hemendik pasatuko naiz.

I.— Ongi. Ba al dakizu hemen nauzula gosaria zerbitzatzeko eta edozein gai eztabaidatzeko.


D.P.— Pena dut ANAITASUNAKo irakurleengandik joan beharra, baina...

I.— Ez zaitetz hestutu. Bilatuko dugu haientzat zerbait.



GUNTER BRETTSCHEIDER-EKIN HIZKETAN

Euskaraz ba dakien irakasle aleman hau, gaur egun Poloniako Estatuan dagoen Danzing-en, Baltikoko itsasaldean kokaturiko hiri hanseatiko libre zaharrea, jaioa dugu 1942.ean. Gerla bukatu eta baina, egun Errepublikak Federala den Westfaliako estatua etorri zen bizi izatera bere senitartekoeekin, Koloniako partean dagoen Solingen-eko hiri txikira hain zuzen ere. Eskolara hiri horretan bertan joan zen: unibertsitatean, berriz, Kolonian hasi zen matematika eta fisika ikastekotan. Urte pare bat sarturik ordea, 1961.ean, Freiburg-eko Unibertsitatean jo zuen, eta han lehenagoko denboretan Alemaniako hainbeste tokitan ikas zitekeen Studium generale delakoa hasi zuen, hots, beste zer batzuren artean parapsikologia, grafologia eta poesia modernoa. Horrez gain hizkuntzalaritza erromanikoarekin hasi zen eta geroago germanikoarekin. Egun alemanez gain, ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz mintzo da. Garai hartan, Frantzia urtebete eman zuen horko hizkuntzan trebatzearren, eta gero gaztelaniarekin gauza bera egiteko Kataluniako Costa Brava aldera jo zuen. Geroago Ungeheur irakaslearekin Bonn-en komunikaziozientziak hasi zen ikasten eta Seiler-ekin Kolonian hizkuntzalaritza orokorra. Gaur egun Koloniako "Hizkuntzalaritza Orokorrerako Institutu"an egiten du lan. Euskal munduarekin, euskaldun jendearekin 1966.ean eduki zituen bere lehenengo harremanak, Koloniako irakaslea den Jürger Untermann-en bidez Koldo Mitxelena ezagutu zuelarik, eta Martin Garin jaunarekin eta "Ez dok amairu" taldeko lagun batzuekin adiskidetu zela. Hortik aurrera askotan etorri izan da Euskal Herrira, eta duela denbora laburra, koordinazioari buruzko bere tesi doktora idatzi eta defendatu duela, esan digunez, aurrerantzean euskararekin batez ere saiatuko bide da lanean.



"XPR-1.3.XPQW"

Zer diok, mutil?

- Andolin Eguzkitza: Lehenengo derrigorrezko galdera ba dakizu zein den, zergatik eta non hasi zinen euskara ikasten?

- Gunter Brettschneider: Neure ikerkuntzarako hizkuntza bat aukeratu behar nuen eta euskararen espezifikotasunarekin jakinaren gainean egonda besterik gabe euskaldunen hizkuntza hautatu nuen. Ikasten E.U.T.G.n eta Deustuan hasi nintzen Patxi Altunarekin. Gero Euskal Herrian barrena maiz ibili izan naiz, eta Gipuzkoa-Nafarroako muga inguru horretan hainbeste xingola grabatu dut, Garin, Amezketa, Azpiroz eta Berastegi aldean batez ere.

- A.E.: Orain dela gutti Graz-en egon zara Schuhardt-en paperak ikustearren...

- G.B.: Bai, hala da; Schuhardt da, izan ere, kanpoaldetik etorrita euskararen arloan ikerketa zientifikoak egiten hasi zen lehenengoetariko bat...

- A.E.: Eta horrekin loturik nola dakusazu euskal ikerketen egoera?

- G.B.: Diotsudanez bera izan zen lehenengo-etariko bat, eta nire ustez nahikoa garrantzitsua. Oso gizon bitxia zen eta hizkuntzen mailan izugarria; bera izan zen, esate baterako, Andalusiako gaztelaniari jaramon egin zion lehenengoa. Urkixo, Azkue eta Lacomberi hainbeste eskutitz idatzi zien, Lacombe-ri kasu batez, lantzean behin, sei edo zortzi gutun astero. Eskutitz pilo hori da hain zuzen begiratu dudan materialea, bestelako argitaratugabeko lanik ez dagoelako. Berarekin eta R.I.E.V. aldizkariaren inguruan mugitzen zirenekin hasi zen, erran dezakegu, euskal ikerketen bizkundera; Euskal Herriaren birbizkunde jeneralaren barruan, jakina. Bere Sarako hizkeraren deskribaketa oso ona da, eta orobat beraren beste anitz lan, nahiz eta batzu, zeukan irudimenari esker, nahiko bereziak izan eta beharbada ez hain baliotsu, asko eta asko idatzi baitzuen euskarari buruz.

Bestela egoera jeneralaz zer esanen nizuke? Dialektologia, esate baterako, Bonaparte printzea hasi zenetik hona aski aitzineratu da, baina oraindik oinharritzko lan asko egitear dago, hala nola, hainbestek eskatu duen baina hau dela edo bestea dela oraino egin ez den atlas linguistikoa. Bonaparte eta Azkueren lanak oso garrantzitsuak izan ziren, oinharriak finkatu zituztenak; eta orobat Urkixorenak, beronek egin zituen liburu zaharren berrargitaldaria batez ere, Axularren Gero zela, Etxeberri Sarakoaren obrak edo eta Urthe-ren gramatika zaharra. Gero Lafonen aditza eta, beste lan batzuren artean, haren Larrañeko hizkeraren deskribaketa fonologikoa ezin daitezke aipatu gabe utzi; halaber Mitxelenaren fonetika historikoa; baina, haatik, oraino hizkuntza mintzatuaren deskribaketa asko falta zaigu, guztiz beharrezkoak direnak hizkuntza benetan nolakoa den ezagutuko badugu.

- A.E.: Eta zer deritzozu N'Diaye-ren lanari, Maiako euskararen deskribaketari?

- G.B.: Martinet-en eskolaren ekoizpen tipikoa duzula berau, eta akatsik aipatzekotan zerak aipatuko nituzke, batetik oso deskribaketa mekanikoa dela, hizkuntzaren ibilkera eta mekanismoa ezagutu gabe egin den lana, eta beste aldetik, ez dela orain arte, lan hori burutu arte idatzi eta ikertu den guztia kontutan hartu. 1961.ean oso ezaguna ez den liburu bat, ene aburuz oso ona, agertu zen, Aita Alzoren "Estudio sobre el euskera hablado". Eta hori bezalako lanak dira falta zaizkigunak. Lan zuzenik guti egin da. Askotan filologia gonbaratua da egin dena, h.d., testuak azter, datuak bil eta horrela. Lan hori ederto dago eta egin beharrekoa da, zalantzarik ez, baina, esate baterako, jakin ez dakigu, edo oso neurri ttikian, euskara mintzatua nolakoa izan den. Historikoki euskara mintzatua guztiz

ezezaguna da. Begira, gaur egungo edozein hizkuntzaren maila biak gonbaratzen eta alderatzen badi-tugu, hots, mintzatu eta literaria, diferentziak izu-garriak dira. Nork esan liezadake beraz niri Axularren denborako euskara mintzatua eta berak idatzi-takoa bat bera zirela?

- A.E.: Diozun hori egia da, baina zelako ju-dizioa botako zenuke egoera orokorraz?

- G.B.: Adibidez euskaraz ez dakien hizkuntzalari bat jar dezagun, gure institutuko zuzendaria, Seiler jauna. Gerraosterarteko lanak agertu arte ez zekien ere ikerketarik zegoela euskal arloan, edo oso hein ttipi eta pobreak zirelakoan zegokeen behintzat. Lafon eta Mitxelena izan dira maila gorago-goko bat eman dietenak. Hori, nik uste, egoeraren marka ona izan daiteke.

- A.E.: Eta dialektologia eta filologiatik aparte zer pentsatzen duzu De Rijk-en lana bezalakoan mailaz, etsenpluz?

- G.B.: Guztiz beharrezkoak direla, noski. De Rijk-en beraren lana oso ona baita. Baina koordinatuki, elkartasunean egin behar da lan. Alde batetik hezkuntza linguistikoko on bat lor eta datuen bilketaren bidez, lehen esan bezala, hizkuntza errearen datuak, hizkuntzaren arlo guztiak azter eta ikerketan jar. Joskera bezala, soziolinguistika, psikolinguistika edo eta beste edozein arlo. Hizkuntzaren egitura oinarrizkoak dira aztertu behar direnak, hizkuntza bera antolatzen dutenak eta berarentzat tipikoak direnak. Bestalde semantika ere landu behar da, nahiz eta hor behintzat lexikografiak nahiko lan egin duen; esanguren historia egin behar da. Euskalariak sortu behar dira ene ustez...

- A.E.: Bai eta nireaz ere, euskalariak eta ez ofiziozko euskaltzaleak, zoritxarrez, eta halabeharrez, egundo maiz gertatu den bezala.

- G.B.: Hori da. Beste hizkuntzak ezagutu behar dira, eta kasu batez joskera gonbaratua egin, euskal joskera oso guti aztertu baita orain arte. Jakin ba dakigu galdegaia nola funtzionatzen den euskaraz, baina deus gutti gehiago, euskal joskera oso guti, arras guti, aztertu baita orain arte. Unibertsalen azterketa ere oso interesgarria izan daiteke, hots, munduko hizkuntzetan amankomun diren egituren analisia, guk geuk hemen Kolonian gure "Unibertsalprojektu"an egiten dugun bezala edo eta John Greenberg-en norabidean.

- A.E.: Benetako programa eta egitaraua da aipatu duzun guztia. Baina beste puntu bati helduta, zelan dakusazu euskararen egoera, aurrera ala atzera goaz zure ustez?

- G.B.: Aurrera noski. Ez da esan behar, bestalde, hain baita argi, ezen Euskal Herriak euskara galtzen baldin badu bere burua galtzen duela. Egoera, egia esan, ez da oraindik on, baina aitortu behar

dizut lehenago askoz eskeptikoago nintzela, eta ba dirudi gazteriak eta umeek, ikastolako umeek, euskaraz hitz egiten dutela, eta batez ere hitz egiten dutela. Baina politika linguistikoko bat pentsatu behar da eta planifikatu, ostera gureak egin du. Edozein kasutan ere, Jainkoari eskerrak, Humboldt oraino oker dabil; bera, dakizunez, mende honen hasieran ere jadanik euskararen arrasto literariak baizik ez zela geratuko bihotzminez sinetsirik baitzegoen.

- A.E.: Eta euskara batuaz zer diozu?

- G.B.: Beharrezkoa dela baina beldur naizela euskara bizia galduko ez ote den. Euskal Herrian haranez haran hizkerak ezberdinak dira, eta ez dakit aberastasun guzti hori betiko joanen ez ote zai-gun...

- A.E.: Hori oso hizkuntzalari-eritzia duzu, lar segurutik.

- G.B.: Beharbada...

- A.E.: Ez, seguru. Nahikoa normala da orain joera guztiak batasunerantz izatea, baina ni neu seguru nago euskalkiak ez direla hilen. Egin duguna errazago izan da, lau tradizio literaririk bat bakarria egin, eta ba dirudi lortzekotan gaudela. Hor duzu zuk Alemania bera.

- G.B.: Tira. Ederto, egin behar duguna ordea zera da, euskara kultura sor, beste kulturak ezagut, atzerritarren hizkuntzak ikas, eta euskaldunok propio dutena euskaraz eman.

- A.E.: Agian lortuko dugu. Horretan gabil-tza. Baina euskal mundua apur bat alde batera utzita non kokatuko zenuke zeure burua hizkuntzalari-tzaren barnean?

- G.B.: Eskola bat aipatu baino gehiago, nik neuk hizkuntza batetan interesgarrien dakuskidan arloan ditut nahiago, arlo horien ikerketa egitea. Lehen egin dugun legez zerak aipatuko nizkizuke, hizkuntzaren antolamenduaren oinarririk eta hatsarreak. Horik aztertzea da nire ustez hizkuntzalari-tzaren lan nagusia. Euskararen kasuan, eman dezagun, galdegaia arazoa eta komuntadura.

- A.E.: Hori esanda, baina, neurri batez aukera bat egiten duzu, deskribatimoa, ez, egin dagi-gun, gramatika sortzailearen ordezkariak egiten luke ten moduan, hizkuntzari buruzko teoria orokor baten ikerketa...

- G.B.: Bai, egia da, ene eritziz hizkuntza ba-koitzak bere sistema propioa dauka, bere natura bereziaren jabe da, oinharri inmanenteen gainean finkatua dagoen natura berezi bat.

- A.E.: Eskerrik asko elkarrizketa honegatik.

Andolin Eguzkitza

Eliza eta Irakaskuntza Euskal Herrian.

IRAKASKUNTZA PRIBATUAREN ALDE (2)

ELIZAREN AUKERA: IRAKASKUNTZA PRIBATUA

Irakaskuntzaren filosofia orokor baten barruan, gutun pastoralaren eskema nagusia bi ardatz hauen gainean pentsatuta dago: irakaskuntza "librea" eta irakaskuntza estatala.

Gutunak ez du ia sekula "eskola pribatua" esaten, eta bai "eskola libre" edo "ez-estatala". Honetaz hurrengo batetan mintzatuko gara zehazkiago. Hala ere, zera esan nahi dut hemen: Nahiz eta eskola librearen teoria orokorra egin gutun pastoralak, gehienbat gogoan daukana eta aztertzen duena "kristau eskola" da. Honi buruz teologia luzea egiten du gutun pastoralak. Eta ez da harrizkoa, apezpikuen eskuetatik datorrenez eta batez ere kristaudentzat zuzendua denez.

Eliza, beraz, irakaskuntza pribatuaren alde agertzen da. Areago, horrexeren defentsa da gehienbat Euskal Herriko apezpikuen gutun hau. Zalantzarik ez, ondo konturatuta daude gaurko joera bizi bat, indar politikoen eta kulturazkoen aldetik, bestetara doala: hau da, eskola publikoaren aldekoa eta pribatuaren kontrakoa dela.

Euskal Herriko Elizak, eztabaida horren barnean, argi eta garbi agertu du bere pentsaera eta bere aukera: Eskola "librearena". Honen aldeko teoria luzea egiten dute apezpikuek; baina azkenik, ez ote da aukera praktikoa eta historikoa bat?




Dena dela, teoria horren oinharrian eta aukera praktikokoaren funtsean hutsune bat nabarmentzen da, gutun pastoral osoari nabari zaion hutsune berbera: datu soziologikoa. Zenbat eskola pribatu (Elizarenak edo besterenak), zenbat ikastola, zenbat eskola estatal dagoen Euskal Herrian; horietako bakoitzak zein indar duen, zenbat ikasle, etab. Guzti hau izan behar genuke gogoan, Euskal Herriko Elizak edo bestelako edozein erakundek eskolari edo irakaskuntzari buruz egiten duen teoria eta hartzen duen jarrera ikustean.

KRISTAU ESKOLA?

Apezpikuek gaurko gizartearen haniztasuna onhartzeko dute; areago, gutun pastoralaren oinharri bezala jartzen dute. Irakaskuntzaren demokratikotasuna, pluralismo horretan mamitzen da, hain zuzen ere, gaurregun. Eta bide horretatik abiatzen dira gogoz apezpikuek.

Bestalde, irakaskuntza estatalistaren eta zentralistaren kontra agertzen da dokumentu hau. Alde horretatik, "nazional-katolikismoa" eta horrek ezarri duen irakaskuntza politika eta ideologia ukatzen ditu. Beraz, esan daiteke esan, joera irekia —ia progresista— nabari duela apezpikuen gutunak...



... Baina batez ere eskola pribatuari buruz diotenari, arrazoinketa tradizionala dario. Eta alde horretatik, demokraziak berak eskatzen duen erreformismo mailan gelditzen da Apezpikuen pentsakera osoa.

Oinharri-oinharrian ez da eztabaidatzen Elizak gizarte berrian izan behar duen —edo izango duen— lekua eta egitekoa. Oraindik ere "kristau eskola" da kontzeptu nagusia: horrek bere kontzistentzia, bere autonomia luke gure gizarte pluralista honetan.

Baina "kristau eskolak" ez ote digu gogorazten aspaldiko beste formulazio haik, aspalditik hain zalantzapetan jarriak: "kristau alderdia", "kristau sindikatua", "kristau kultura", "kristau filosofia"?

Elizak gizarte pluralista, sekulartu eta demokratiko honetan izan behar duen tokiaren eta egitekoaren arazoa aztertu, eztabaidatu eta argitu behar da, "kristau eskolari" buruzko galderari erantzuteko.

Horregatik niri galdera zorrotz bat geratzen zait, gutun pastoralak irakurri ondoren: "Kristau eskola" bai?

Paulo Agirrebaltzategi

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko txartela eta bidal helbide hontera:

ANAITASUNA

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:


Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

Bertorako 1.000 pezeta
Latin Amerikarako 1.150 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako 1.300 pezeta

Ale bakoitza: 50 pezeta

ESKOLAURREA: Nortasun baten bila



Azken hilabete hauetan burutu diren inkesta eta azterketen arabera, ikastola mugimendua orokorki harturik, mugimendu honen erdia baino gehiago Eskolaurrean dagoen ikasleagoak osotzen du. Beraz, Ekolaurrean garrantzia ezin eztabaidatuzkoa da zifra hutsei begira jarriz gero, Euskal Herriko haurren euskalduntzeari eta hezierari dagokionean.


HISTORIARI BEGIRA

Sei urtez gorako haurren hezieraren historiarekin gonbaratuz gero, eskolaurreko haurren heziarena ia oraintsukoa da, Euskal Herrion bertan, oro har, ozta-ozta heldu da 20 urte betetzera. Estatu Batuetan, adibidez, 1920. urteaz geroztikoa da, eta 1960. urte inguruan hasi zen benetan heziara planteiamendu zehatz samar baten barruan haurrak lantzen, eta bereziki "desabantailatuez" arduratzen.

1920. urtean, batez ere ikastetxe eta unibertsitateetan sortu ziren lehen haurtzaindegiek ikerkuntz helburua zuten, eta osasun fisikoa aitzineraztea ia beste iriskizunik ez zitzaizen izendatu.

Lehen Mundu Gerratearen ondoko depresio urteetan, eta lanik gabe zeuden irakasleak kontutan harturik, Gobernu Federalak bultzada ofizial bat eman zien. Osasun fisikoa eta ohitura "onak" (jantzea, garbitzea, jatea etab.) indartzea zen helburu nagusia.

II mundu gerratean, berriz, gudu industrietan lanean ari ziren amen haurrak egunean zehar nonbait zaindu beharra sortzean, beste bultzada bat hartu zuten haurtzaindegiek, baina egitarauari dagokionez pausotxo bat eman zela aitortu behar da. Freud, Frank, Gesell eta Spock-en estudioetan oinarriturik, haurren arazo emozionalez berezikiago arduratu beharra somatu zen, aitaren gabeziak eta amaren eguneroko lanak nabarmenki azpimarkatzen baitzituzten haurren arazo emozionalak.



Gerrate ondoan eta 1960. urte inguru iristen, berriz, haurren ezagupenezko alderdia azpimarkatu zen. Eskubide zibilen aldeko mugimenduaren eta gizarte klase apalenetako haurren eskola porrotaren (fracaso escolar) prebentziorako izendatu zen diruaren laguntzaz pauso berri bat eman zen arlo honetan. Piaget, Kirk, Hunt, Bloom eta beste zenbaiten lanak izan ziren adin honetako haurren izaera eta ahalbideei buruz horizonte berriak ireki zituztenak.

Ikuspegi historiko bizkor honetatik atera daitekeenez, haurtzaindegia helburu orokor batzuz lortzeko, eta batez ere, premia sozial batzuri erantzutetik hasi zen. Indar historiko-sozial batzuz jokoan sartu ahala, haurren alderdi desberdinak azpimarkatuz egin du aurrerantz haurtzaindegia mugimenduak. Oro har, hiru fase nagusi ezagutu dituela esan daiteke, nahiz eta helburuok beti nolabait nahasturik gertatu izan badira ere: Osasun fisiko eta ohizko ohituren haroa (1920.az geroztik) sozio-emozional hazkunderarena (1940.az geroztik) hazkunde kognitiboaren eta eskolaren arrakasta lortzeko beharrezko trebetasunena (1960. urteaz geroztik).

Aldian aldiko helburu zehatzagoen arabera, haurtzaindegia nortasuna, planteiamendua eta funtzionamendua ere aldatuz joan da. Hemendik edo dator terminologia mailan ere dagoen izendapen ugartasuna (guardería, jardín de infancia, maternal, preescolar, escuela infantil, etabar.// haurtzaindegia, lilitegi, parbulario, eskolaurre.// nursery, kindergarten, preschool).

Gaurregun munduan zehar dauden eskolaurre-rako programek desberdintasun aski nabarmenak eskaintzen dituzte, helburuei dagokienez ezezik irakasmotodoen alorrean ere. Hala ere, hiru sail nagusitan bana daitezke: a) usadiozko haurtzaindegia, b) kognitiboki orientaturiko eskolaurrea, c) Piaget-en arabera kognitiboki orientaturiko eskolaurrea.

a) Sozio-emozional eta pertzeptual-motorezko helburuak dira nagusi (Read).

b) Haurra ezagunez jaberaztea eta honela eskola haroan arrakasta lortzeko trebatzea du helburu nagusia (DARCEE, Bereiter-Engelmann).


c) Piaget-en teoria epistemologikoaren arabera, haurren adimen hazkundeak lau aldi nagusi ditu: sensorio-motorea (0-2 urtetara) operazioaurrekoa (2-7 urtetara) operazio konkretuena (7-11) operazio formalena (11-12z gora).

Eskolaurrean operazioak posible ez badira ere, horietarako aurrebaldintzak sortzea luke helburu (Kamii).

Dirudenez, azken sail honetakoak dira helburuei eta edukiei dagokienez programaketa orokor eta globalizatuen eskaintzen dutenak, zenbait puntutan azpimarkatze eztabaidagarri batzuz gorabehera.

Laburpen gisa, zera esan daiteke: joera desberdinak gorabehera, eskolaurreko hezieraren helburuak lau ardatz nagusiren inguruan globalizatzen direla: sozio-emozional edo afektiboa, pertzeptual-motorea, kognitiboa eta hizkuntzazkoa izendatu genituzkeen ardatzenez, eta lau alderdiok modu orekatu batez konbinatzea, programatzea, lantzea eta ebaluatzea beharrezkoa dituela ongi planteiatu Eskolaurre heziera batek.

L. Mendiguren



“EUSKAL HERRIA” HIRU LIBURUTAN

Duda handi batekin hasten naiz, Luis C. Nuñezek, 1.977. urtean Donostiako Txertoa argitaldarian, eman duen trilogia (1) aztertzen, ez baitakit zer kriterio erabil, nondik jo, soziologia profesionaletik begiratzen has ala liburuak izan dezakeen eraginari begira, sakontasuna azter ala hedadura ausnar, Euskal munduko soziologia lanekin gonbara ala mundu osoan normalki egiten diren lanekin neur, baina nahiz eta ez jakin ere, gauzak aztertzeko beharretan gaudenez gero, hemen zenbait puntu.

Hasteko, liburuz liburu joango naiz eritziak ematen eta azkenean ondorio labur bat aterako dut.

LEHEN LIBURUAZ

Euskararen eboluzioa eta gaurko egoera aztertzeko dituzte batez ere, euskararen zapalketa du beti gogoan eta beharbada, zapalketa hau beren lan hipotesia da, behintzat, obraren lehen zatian.

Liburua bi zatitan bereizirik dago, orain lehenengoarekin hasiko gara. Eritzi zabal bat emateko esan behar da deskripzio soilean geratzen dela azterketa, ez duela sakontasun handirik eskaintzen.

Ba dituzte zulo batzuek ere, nahiko ilun geratzen diren alderdiak, adibidez: sorterria aztertzerakoan, bai oraingo euskal biztanleak sortu diren probintziari begira, bai euskal probintzia bakoitzeko euskararen eboluzioa ikusterakoan; gizarte maila eta euskara ere ez dituzte larregi aztertzen. Euskara norekin, noiz eta zenbat erabiltzen den esaten du, baina egoera diglosikoari ez dio begiratzen eta mementu honetan euskararen egoera diglosiaren teoria aplikatuz aztertzen dugu gehienetan, beste teoriarik sortzen ez den bitartean.

Bigarren zati batetan euskararen defentsa aztertzen du, baina nondik nora joan behar den baino gehiago orain arte zer egin den konstatatzen du.

Defentsaren zatian argitaldarigintza aztertzen du datu nahiko zabalekin, ondoren bizilagunen ak-

titudeetara pasatzen da eta bertan eritzi-zundaketa batzuen berri ematen du, baina aktituedetan geratzen da eta mementuan beharrezkoa da ere jakitea jende honek, bera praxian zer egiten duen euskararen alde: zenbat doazen ikastoletara, zenbat alfabetatzen diren eta beste. Eta datu hauk, gutti gorabehera bada ere, hor zehar ba daude.

Konklusioan esaten du Hego Euskal Herria hiru faktorek determinatzen dutela, nortasun etnikoak, industriaketak eta errepresio egoerak. Faktore hauk garrantzizkoak dira, baina non uzten du inmigrazioa?

Lortzen du, hala ere, euskararen egoeraren espelikazio zabal bat ematea, eta gai honi buruz hor zehar dauden hainbat daturen biltzea, egun ez da gutti. Aipatzekoa den beste gauza bat, bere trilogian euskarari eman dion garrantzia.

BIGARREN LIBURUAZ

Liburu honetan demografi azalpentxo azaleko bat egin ondoren eta hazkunderaren desekilibrioak salatuz gero, produkzio atalen deskribapen laburra egiten du, hiru atal klasikoetan, hots: lehenengoa, bigarrenengoa eta hirugarrenengoa bereiziz eta subatalak seinatuz. Gero klase sozialetaz zerbait esatera pasatzen da, poderio muinak non dauden azaldu nahiz.

Nire ustetan liburuaren bigarren zati hau nahasmendu haundikoa daiteke, behintzat liburuaren tituluari bagagozkio. Ez baitut uste klase sozialak honela aztertzen direnik (klase sozialei propio dagozkien horrialdeak 15 dira bakarrik). Beraz, dilema batetan planteiatzen da autorea. Klase sozialei dedikatua bada liburua, ez zaio atera tituluak adierazten duen mamia. Barnean benetan esaten duena egitea gura batzuen, beste titulu bat beharko zukeen.

Osterantzeaz, gai bakoitza ukitzerakoan ez du gaizki jo, ukitutako gaiak hauk dira: Biztanle gorabeherak, Produkzio zektoreak, boterea duten Euskaldunak, Klase sozialak, Arrasateko kooperatibagintza, Nekazal klaseak, Grebak.

Metodologia aldetik egindako lanean bilduma bat besterik ez da, baina bere praktikotasuna eta batez ere, gai monografikoen zabalkuntza egiteko duen gaitasuna erabat probetxagarriak dira.

Esateko geratzen zaidana zera da, Euskal Herrian hain lotuak daudenez klase borroka eta nazional arazoa, hobe lukeela nazional problematikaz ere zerbait esatea, zeren, liburuan erabiltzen dituen hainbat datuk ongi baino hobeto seinatzen dute nazional arazoaren eragina eta bestela begira beza greben atala, hainbat datu ematen diona.

HIRUGARREN LIBURUAZ

Hiru liburuetatik dotoretsuena eta mamitsuena da, berak ukitzen baititu Euskal Herriak orain dituen hainbat arazo, frankismoaren garaian egon den egoeraren hainbat puntu ukituz.

Aztertzen dituen gai batzu hauk dira: Euskararen negazio ofiziala, zerbitzu publiko antzuak, negazioaren negazioa (erreferendumaren azterketa), katolikotasunaren garrantzia, mentalitatean komunikabideek izan duten garrantzia, errepresioa, tendentzia politikoak, azken elkarrizketa.

Nabaritzen denez politika arloa ikusten du gehienbat, aurreko liburuan ekonomia ukitzen zuen bezala, hainbat argigarri ditu liburu honek, batez ere ahoz aho Euskal Herriaren egoera salatzeko egin diguten hainbat afirmazio frogatzeko.

Kapitulurik landuena, frankismoak eskaini dizkigun hiru erreferendumen azterketa litzateke, bertan azaltzen du Euskal Herrian eman den aldaketa; Nafarroa da bitxiena, 1947. urteko erreferendumean abstentzio oso txikia izanik, o/o 6koa, 1976. urtean o/o 26ra pasatzen da, Arabaren gainetik jarritz. Kalkulatzen du ere abstentzio indizea, Euskal Herriak 1.947.ean zuena 0'9 bada, 1.966.ean izan zuena 1'8 da eta 1.976.ean egondakoa 1'9, penintsulako gorena zalantza gabe.

Liburuak pilo bat pitxikeria dakartza eta bilketa lan handia egin duela autoreak ere garbi gertzen da. Nahiz eta, kapitulu askotan zientifikotasunaren zehaztasuna galdu, eta erabiltzen dituen datuen objektibotasuna eta balioa zalantza bizian jarri.

Objektibotasun eta konkretatzeko zera esango dugu: "Encuesta" entpresak, gizonezko-emakumezko artekoen dauden erlazioetatik egin zuen inkestaren balioa zalantzan jar daitekeela, Estatu gutian 1.489 inkesta egin baitzituen, horietatik Euskal Herrian 150 bat eginez, zuek kontatuko dizazue Euskal biztanlegoa 150 inkestekin jeneral daitekeen ala ez, berdinean edo antzerako zerbait esan dezakegu Foessaren inkestetaz, duda gabe baieztatu daiteke Estatu guztirako egin den mustrak balio duela baina ezin daitekeela mustra horretatik Euskal Herrirako konklusiorik extrapola.

Horrelako iturriekin liburuaren azterketak ez dira guztiz fidagarriak, baina, tira! besterik ez dagoenez.

TRILOGIAZ ERITZI OROKORRA

Lana, soziologia serioetik ikusirik eztabaidagarria da, ez dut esango txarra denik, ez baita gauza berdina txarra eta ahula, ahuleziaren parte handi bat iturrietan datza, beste bat lanaren arintasunean eta arruntasunean. Dena dela, zihur asko, C. Nuñezek bere muga hauk lana hasterakoan ba zekizkien. Lanari ez diot ikusi gogoari izateko errurik, datuak nahiko fidagarri izan behar lirateke, baina azterketak arinegiak dira.

Euskal ingurugirotik begiraturik beste ondorio oso desberdin bat ateratzen da. Lehengoz Euskal Herria aztertzerakoan sarri behar izaten diren zenbait daturen bilduma lortu duela, bigarren ideia asko jeneraltzeko oso baliagarri dela, hirugarrenez liburuaren zeregin nagusia, duen balio pedagogikoa datzala. Orain hori bai, bilduma soilean geratu da libururik gehiena.

Oso erraza eta atsegina da irakurtzeko eta Euskal problematika zabaltzeko aproposa, zabal-kuntza gisa oso igarpen egokiak ditu, beharbada gaien beste ordenamendu batekin hobeto legoke.

Hiru liburuen, obra osoaren, definizio bat emateko eskatuko balidate honela erantzungo nuke, alde positiboa nabarmentzeko zabalkunde gisan oso praktikoa eta pedagogikoa dela, eta alde ezezkorra salhatzeko arin egina, ahula eta iturrien posibilitatea zalantzan ezar daitekeela sarritan.

Eta azken lorea ere bota behar zaio, benetan gutti izan dira hiru liburutako trilogia Euskal problematika aztertzen argitaratu dutenak, lana hor dago, eta errealtatea da.

Azkenez egileak berak eskerrak ematen badizkio Ekorri zein Sedari, nik ere eman behar dizkiet, soziologo bat finantziatzen ausartu direlako eta bakan utzi dutelako, ez baita hori izaten beti ere, soziologia munduan dabilen jendearen zoriona.

Iñaki Azkoaga

(1) Luis C. Nuñez

"Opresión y defensa del Euskara" Edit. Txertoa Donostia 77.

"Las clases sociales en Euskadi" Edit. Txertoa Donostia 77.

"La sociedad vasca actual" Edit. Txertoa Donostia 77



musika

FONOGRAFIA

Bizi garen urtean, lehenengoz fonografoa egin eta entzun zen egunetik, ehun urte igaroko dira.

1878. urtean asmakizun honen arrakasta, gaur egun gizonak hilargia zapaltzea baino handiagoa izan zen. Eta orduko poza eta ezustea bere arrazoi handia erakutsi du ehun urte ondorengoetan. Baina ikus dezagun imentzio honen lehenengo urratsak.

1877. urtean, Thomas Alva Edisonek, soinuak batzeko makina baten proiektuak egitera hasten da bere laboratogian.

Abenduko 6an, aparatu harrigarri baten aurrean aurkitzen da. Hau, eztaizuzko paperaz hornitutako zilindro bat da; eskutoki batekin funtzionatzen du eta tutu akustiko bat dauka. Makina horren aurrean "Mary had a little lamb" haurren abestia kantatu zuten, eta berriro orratza lehen posizioan jarri ondoren, Edisonek bere ahotsa distorsionatua baina ezagungarria entzun zuen. Mementu hartan historia guztiko lehen grabaketa egin zen eta makinari, grekotik datorren "fonografo" izena jarri zioten. Fonografoaren patentea, 1878.eko Otsailan atera zuen Edisonek.

Beranduago Edisonek bere buruko "semea" utzi eta elektrizitatezko argian ikertzapenean sartu zen zuzen zuzenean.



Edison eta bere "semea": fonografoa

Baina asmakizuna sortu ondoren, beste batzu ere jarraitu ziren fonografoa ikasi eta hobatzen, eta guztietatik garrantzitsuenetakoa Graham Bell izan zen.

Ordutik hona, lehenengo makinatik gaurko aparatuera teknikak aurrerapen handiak egin ditu eta gaur ez da ondo ikusten norarteino helduko diren "video teknikak" eta diskoaren desagertzea ere (¿?) beste elementu berri batzuri, komunikazio-kodifikazioak batez ere, lekua utzirik.

Fonografiaren historia lau periodotan zati genezake:

Lehenengo bat, 1876.etik 1900.era, asmakizun eta esperimentaketa garaia.

1900.etik 1925.era, lehenengo grabaketa komertzialen epea.

Hirugarrena, 1950.erarte eta L.P. "Long-play" diskoen jaiotzez bukatzen dena.

Eta azkenekoa 1950.etik, gaurko egunetara datorrena, eta bertan ikusi dira estereofonian asmakizuna magnetofono hobakuntza, "kaxetea"ren imentu eta zabalkuntza eta azken garaietan soinu koadrafonikoan erabilitasuna.

Azkenez, hainbat gauza esan daitekeen gai honetatik, egun oroigarri batzu gogoratuko ditugu:

1877.eko Abenduak 22, Edisonek, Scientific American Associationen, beren imentzioaren erakuspen bat egiten du.

1878.eko Otsailak 19, Edisonek fonografoaren patentea ateratzen du.

Hugesek, lehenengo mikrofonoa egiten du.

1889 Wiena. BRAHMSek zilindro batzutan grabaketak egiten ditu.

Edisonen lehenengo grabaketa komertzialak argitaratzen ditu.

1904 Berlin. Odeon etxeak aurpegi bitako diskoa ateratzen du.

1912 Columbia etxeak azkeneko zilindroa atera du, eta aurrerantz diskoak bakarrik egitera jarraitzen doa.

1920 L. Guest eta H.O. Merrimanek, Ingalaterran, lehenengo grabaketa elektrikoa egiten dute.

1931 Thomas Alva Edison hiltzen da, laurogeitalau urterekin.

1933 BASF, Pfleumerren laguntzarekin magnetozinta egiten du.

1958 Audio Fidelityk, lehenengo "estereo" diskoa salmentan jartzen du.

1964 PHILIPS etxeak "kaxete" ezaguna atera ditu mundu guztian.

1971 Soinu koadrafonikoa jaio da. Electro-Voice etxeak, lau kanaletako lehen diskoa ateratzen du.

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

10 urte debekaturik egon ondoren
berriz kaleral

Hiruhilabetez behin
argitaratzen da

Monografiak
Dosierrak
Azterketak
Kritikak
Gaurko gaiak

Laugarren zenbakiaren
gai nagusia:

EUSKAL KANTA BERRIA

Laugarren zenbakiaren lankideak:

A. Otaegi, J.
Altzibar, J.
Artze, J.A.
Azurmendi, J.
Beloki, J.R.
Intxausti, J.
Iriondo, Luis
Knör, G.
Kortaberria, P.
Legarreta, P.M.
Lete, X.
Pagola, Manolo
Zubizarreta, I.

JAKIN

500 pta. urtean. 175 alea

Eskabideak eta harpidetza:

Cuartel, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 65 11 06

SUKALDERAKO SALTSAK



VLAMSE KAARBONAT (Okela gisatua flamaranda erara). Oharra: Jateko hau egiteko lurrun lapiko bat (1) behar duzu.

Flandeseko herrietan egiten den gisatu bat duzu hau, gurea bezalakoa izaten da baina ardoz egin beharrean garagardoz egin beharko duzu.

6 lagunentzat beharko dituzu: Gisatua egiteko kg. bat haragi (magala, lepoa), 500 gr. tipula, litro eta laurden bat garagardo, kilo bat patata, olio, gatz, irin goilarekada ttiki bat, ereinotz (2) eta biperhauts pixkat.

Zati eta dora ezazu haragia lapiko barruan. Atera lapikotik haragi zatiak eta beraien ordean dora itzazu tipula zatiak oliotzan. Biak, haragia eta tipulak doratuz gero, ipin lapikoko oliotzan irin pittin bat eta berehala bota lapiko barrura haragi eta tipula zatiak. Orain garagardo guztia bota beharko duzu lapikora, gatz eta ereinotza ere. Hitxi lapikoa eta balbula biratuz gero 50 minututan egosten utzi beharko duzu.

Hau guztiau egin ondoren zuritu eta zatitu dituzun patatak lapikora bota beharko dituzu, dena berriro 10 minutu gehiago egosten utziz.

Jan baino lehenago, biperhauts beltz pixkat bota dezakezu, nahiz baldin baduzu.

On Egin.

(1) Puchero presión
Super - cocotte

(2) Laurel
Laurier



26 igandean urte honetako aberri eguna ospatuko da. Orain dela aste batzuk hegoaldeko alderdi guztiak bildu ziren eta deia edo konbokatoria egitea hegoaldeko lau hiriburuetan erabaki zuten, eta "Consejo General Vascongado"ak propuesta onhartu zuen.

Batez ere esan behar dugu aberri eguna beti leku bakar batean egin dela eta konbokatoria beti izan da euskaldun guzti-entzako, Euskal Herri osoarentzako. Aurten ohitura puskatu dugu eta honela iparraldeko euskaldunak baztertu ditugu. Eta hortaz "C.G.V." horrek ez du ezer esan. Zer kasualitatea.

Denok ba dakigu nola den iparraldeko egoera:

- 1) detenituak (Xan, Aranguren,...),
- 2) euskararekin amaitu nahi dute (Donapaleuko ikastola),
- 3) gobernu frantsesak ez du onhartzen Ipar Euskal Herria herri bat bezala, eta hor dago beste herriekin departamentu berdina batean),
- 4) urte bakoitzean 3000 bizi-lagun lanaren bila Bordele edo Paris aldera joan egin behar dute (eta Ipar Euskadin 250.000 bizi-lagun bizi dira bakarrikan),
- 5) bere lanbide inportanteena turismoa da, eta benefizio ateratzen dituzte guztiak berriz Paris aldera joan egiten dute.
- 6) nekazariak ez dute ezta dirurik ezta makinaria egokirik.
- 7) eta orain gainera jarri nahi digute Miarritze ondoan zentral nuklear eder bat.

Balantze honekin ezin dugu ahaztu gure aberriko iparraldea. Ipar eta hegoaldeko etsaia berdina berdina dugu: kapitalismoa.

Frantzia eta Espainiako gobernuak jarri eta inposatu nahi digute Bidasoako sasimuga hori, bainan ala ere gaur esan dezakegu ipar eta hegoaldeko zazpi lurraldeek herri bat, nazio bat osatzen dutela. Herri bat gara!.

Borrokan jarraitu behar dugu gure herriaren batasuna eta independentzia nazional eta sozial lortu arte. Eta gure ustez urte honetako konbokatoria ez da oso egokia.

EUSKADI BATUA ETA INDEPENDENTE BATEN ALDE!

HERRI ZAPALDUEN INDEPENDENTZIA NAZIONAL ETA SOZIALAREN ALDE!

AMARA ZAHARREKO EZKER ABERTZALEA

78 - III - 14.

Batez ere barkatu nere euskara kaxkarragatik. Euskaldun berri bat naiz. Ez zait gustatzen idaztea baina hemen nago, aberri egunari buruz puntu batzuk aipatzeko.

1— Aberri eguna beti izan da Euskal Herriaren eguna, eta Euskal Herria edo Euskadik zazpi lurralde dituen, lau hegoaldean eta hiru iparraldean, ez da ezta aipatu behar.

2— Aberri eguna beti antolatatu da urte bakoitzean leku batean, bien Iruñean, bien Gasteizen, baina beti leku batetan bakarrik. Eta konbokatoria beti Euskal Herri osoarentzat izan da.

Orduan, nik galdetzen dut: Aurten zergatik izan behar du hegoaldeko lau hiriburuetan bakarrik? Iparraldea gure aberriaren zati bat ez ote da? Edo nahi dugunean bai, eta ez dugunean nahi ez!

PSOE, PCE, eta abar luze bati ez da harritzeko ez zaiela ajolik, baina Altsasuako mahaia zergatik ez da bildu iparraldeko alderdiekin, bai Lapurdin, bai Nafarroa Beheran eta bai Xuberoan ere aberri eguna antolatzeko?

Hor dago nere galdera, eta euskaldun eta abertzale bezala erantzun bat eskatzen dut.

Joseba Bideluze

*"Denborak du errua: benetakoak
gezurrezkoak bihurtzen zaizkigu".*



Aspalditik hartzen ditugu ondoko idazki bezalakoak. Ez da gure eritzia joko honi erantzunak ematea. Ez du merezi. Guk ez omen dakigu Anonimoak gordetzen duen zera, Cristo Reykoa ala Batallón Vascoespañolkoa denentz. Antz guztiak dauzkate behintzat. Ez da harritzeko beraz, eskuindar puntakoek euskara ere erabiltzea eta ziria sartzeko asmoz aurrez prestatu duten joko hauetan "abertzale" integrista bezala agertzea.

Baina hobe pentsatuz, aspaldi honetan zenbait "abertzale" integristak (Euskal Herriko foku komunista eta Bizkaiko foruen kontra bahiketak ("ixilgordeak") nola doazen gogoratzten dizkigutenak), hilmehatxuak ere "Bizkaiko foru" guztien kontra doazela ohartu behar ko ziratekeen.

Goiz da, ba, argi daitezen zoritxarrez.

Anaitasunako adarjotzaileek.

Huinthana jahuna ez-burgesa.

Hemen nator haspaldiko partez hitz batzuk kontatzera.

Gahurtik hahurrera hoso gutxi idatziko dizut eta zuri gusto pixka bat hemateko hispano razisten ikur-ortografian idatziko dizut, zergatik dakizunez zuretzako bada denbora pixka bat hepaia hartu zala ta horaintxe haste gutxi geratzen zaizu zure rrolloarekin bastarrak engañatuta izorratzen jarraitzeko. Horregatik zurekiko hartu hemanak hongu bukatzea nahi nuke.

Lengo hilleko urtarrillean 22'an Guernikan mitiña heman zenuten txotxolo hartean zu bat izango ziñala gure komando koak bagiñakigun eta hortaraxe propiyo gure komando ko bat ber bertatik zu hikusi ta aditzera joan zan.

Gure honen inpresiyua izan zan kaka ere ez dezula balio eta ez duela merezi aintzakoztat hartzia zure pertsona, an bildu ziran hume kakatzuak ere etziñula konbentzitu zure ton-tuentzako ergel demagojiarekin.

Bañan guretako gehihenak ez giñan konforme geratu ta akziyua hahurrera eraman da zure pesadillarekin bukatzeko hasmotan gera.


Zuk baño millaka aldiz herru gutxihago zutenak, lur azpian dahudenak bat baño gehiagi ba dira, ez degu uzte zu laster lur azpian egoteko hepaitua zaudelako arrazoizko protestarik egingo dezunik.

"Gerturik daukagu odola bere alde emateko"

"Irrintzi bat entzunda.... (Lauxeta).

Gudari

Hoharra; ziur hegon zaitez zuk komunismorik ez dezula ikusiko ez Euzkadin eta ez da Hehuskadin Ere.




Egilea: Larry Trask

LUZETARA

1. eta 58. "----- joan da bere amagana; Bihar etorriko da-----" (2 hitz eta 3 hitz).
9. Erretzen duena.
10. Muhammad -----, boxealaria.
12. Mart., Jup., -----.
14. Nafarroa Euskadi ---!
15. Burdina non moldatzen den.
18. "Haize hegoa, gau ----- ..."
21. Gehiegi.
22. Atzizki adberbiala.
23. Euskal aldizkaria (2 hitz).
25. Atsegin (ipar aldean).
26. "----- bezala itsasoan...".
27. Carrillo-ren alderdia (gaztelau inzialak).
28. Silikio (symbolo kimikoa).
31. Nerea.
33. Zer (forma laburra).
34. Aberria.
35. Eta (frantsesez).
36. Zelan.
37. Artseniko (symbolo kimikoa).
39. Urez hil.
40. Oihu bat.
43. ----- Gras (Karnabaleko Asteartea, frantsesez).
45. Euskal aditzaren pertsonak (3 hitz).
47. "Gernikako Arbola --- bedeinkatua".
49. Erripa.
50. Munduko pilotaleku handiena hemen da.
51. Honez ebakitzen da garia.
53. Bai (gaztelaniaz).
54. Hau asteazkenaz gero dator (laburpena).
55. Mementu.
57. ----- Cid (gaztelaniaz).
58. Ikus I.

gurutzegramak



GOITIK BEHERA

1. 1918.ean jaiota, 1937.ean hilda, gaur bizi eta erreal.
2. Konjekturala.
3. "... Nora joaten zaren ----...".
4. Kasik.
5. Zangoa gainean.
6. ---- Farrow, aktriz.
7. Euskalki bat.
8. PNV.
11. Euskal ----- nahi/behar dugu!
13. Txirrita edo Xalbador, e.b.
16. Kreatura biziak.
17. Atzizki plurala.
19. St. --- (Senpere, frantsesez).
20. Lutezio (symbolo kimikoa).
21. Ipar aldean, hiru daude; hego aldean, ----.
24. Musu.
29. Ez behin behinean.
30. "Orok ikasiren dute ---- den euskara" (Etxepare).
32. Bizkaiko herria.
34. Begirakune.
36. "Hara ----- diren mendi maiteak...".
38. Bizkaiko bortu ederra.
41. Edgar Allan ----, Estatu Batuetako idazlea.
42. Gorila edo txinpantzea, e.b.
44. Asterix non bizi den (laburpena).
46. "----- Bizi Naizen Lurrean".
48. Zilar (symbolo kimikoa).
52. Buruan dena.
53. Non kea, han ----.
56. Atzizki superlatiboa.
57. Adibidez (laburpena).

Egilea: Larry Trask

KAFETEGIA



J. JAUREGI 6 ZORNOTZA. Tf: 673 00 21
Av. EJERCITO 4 DEUSTU. Tf: 447 97 75

Ejamuriza

ALDAEZINEZKO JABEGOAREN AGENTZIA
AGENCIA DE PROPIEDAD INMOBILIARIA.

Fernandez del Campo, 37. Tfnoak: 432 27 45
BILBO - 10

General Mola, 26 Bolue 3 C Trav. Villamonte
Tf: 449 92 54 Tf: 460 01 62 - 460 01 66
BASAURI ALGORTA

ERLOJUTEGIA ETA BITXITEGIA

ORIENT - SEIKO QUARTZ

**Comercial
SANCHEZ**

Erregalugaiak (Hemengoak-Atzerrikoak) eta
enkantea.

Erloju moeta guzien konpontze segurtatuak.
Bapateko bitxigintz grabatuak

DENDA NAGUSIA
Ramón y Cajal 30
Telf. 4357595
DEUSTUA - BILBO 14

ORDEZKO DENDAK
Particular de Diez 2
Telf. 4331743
SANTUTXU
BILBO

Rondoko 4
Telf. 4470338
SAN IGNACIO
BILBO 14

BAZAR SANCHEZ
Virgen de Begoña 16
BASAHURI



Sabino
Echevarria
Güenechea / Promociones

Carmen Kalea 11 - 6 esk.
Tlph. 673 06 19 - 748 - 729
Zornotza/Bizkaia

Zornotzako merkatal lokale eta 90 etxabizi-
tzaren eragintza eta salmenta.

Entzun, ikus...

Caja Laboralaren zozketa: 50 Ekipo Estereofoniko eta 25 Telebista Koloredun.

Hobeki entzun dezazun.

Begiko duzun kantariaren saioa, gogoko duzun musikaldia -klasikoa nahiz egun eguneko- musikaren egiako jatoritasun eta dimentsioa dasta dezazun, CAJA LABORALAK, fideltasun handiko 50 ekipo estereofoniadun eskeintzen dizkitzu.

Hobeki ikus dezazun.

Munduko gertaera nagusiak berezko irudiz eta etxetik mugitu beharrik gabe, hurbil-hurbiletik ikus ditzazun -adib.: Argentinako Futbol txapelketa- edo ta gogoko duzun edozein teleaio ederki ikusteko, CAJA LABORALAK 25 Telebista Koloredun eskeintzen dizkizu.

Zozketa bikain honetan eskuhartzeko, Caja Laboralaren edozein etxetara hurbil zaite. Martxoaren 16tik hurrengo Maiatzaren 15 artekoan Libretan sartzen duzun. 1.000 pezeta bakoitzeko, eta lehendikako saldoan 10.000 pezetako haina zozketa txartel emango dizkizugu.



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREZKIA



Eguneroko bizitza, IRUDI eta SOINU jatorrez jantz ezazu.